

Zein... (eta Bait-) erlatiboak. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (III)

VICTOR HIDALGO EIZAGIRRE*

0. SARRERA¹

Artikuluak da *Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz* sailleko hirugarrena. Lehenbizikoan jorratu genituen (*Erlatibo hautsiak*, Hidalgo 2002a) izen ardatzaren ezkerrean hasita ere, artean osagaien bat izen ardatzaren eskuinetik erakutsi ohi duten erlatiboak (%8 inguru, aztertu corpusetan..., *Axularrec berac esqueñi, ta zuzendu eutsan Carta alabagarria Echaus Arzobispo Jaunari...* –P.A. Añibarro, 1923, 299– itxurako esaldiak; ik. ere Euskaltzaindia, 1999, 184). Bigarrean (-*e*)n... *erlatibo aposatuak*, Hidalgo 2002b), aztertu ditugu *Irakurri dut liburua, jaz prestatu zinautana* –B. Oihartzabal, 1985, 119– itxurako aposizioak, *osorik izen ardatz determinatuen ondotik emandako erlatiboen* azpisaila, zeinak aztertu corpusetan erlatiboen %13 diren, *hautsiak* baino askoz ohikoagotzat ditugun arren.

Hirugarren artikulu honetan aipatuko ditugu (-*e*)n... erlatibo aposatuekin batera euskaraz *osorik izen ardatz determinatuen ondoretik* eman ohi diren beste bi erlatibo motak. Batetik, *zein... erlatiboak*, zeinen inguru emango dugun hainbat datu eta erabilera ohar; eta bestetik, *bait- erlatiboak*, gaingiroki baino aipatuko ez ditugunak aztertu corpusetan agertu ez zaizkigularik.

* Doktore Euskal Filologian.


¹ Lana, besteak beste, 1998-99 eta 99-00 ikasturteetan Eusko Jaurlaritzak eman ikerketa bekei esker burutu ahal izan da. Ikasturte biotan aritu nintzen Baionako Unibertsitate Arteko IKER Euskara eta Euskal Testuei Buruzko Ikerketa Taldean (UMR 5478 / CNRS - Université Michel de Montaigne Bordeaux III-UPPA), Beñat Oihartzabal zuzendariaren gidaritzapean.

1. ZEIN... ERLATIBOAK

Euskaltzaindia 1999rekin batera (218-9) deitu ditugu *zein... erlatibo*’ izen ardatz determinatuari aposatutako erlatibo haiek’ esaldi hasieran galde ize-nordainen bat (*zein...*, *non...*) baliatzen dutenak izenordain erlatibo gisa, ondoko aditzari erantsiz usuenik (eta salbuespenak salbuespen, ik. 1.4.1. atala) *bait-* aurrizkia (ekialdean) edo *-(e)n* atzizkia (mendebaldean).

1.1. Zein... erlatiboen pisu zeharo desberdina gure bi corpusetan

Zein... erlatiboek oso pisu desberdina erakusten dute guk exhaustiboki aztertu bi corpus nagusietan². 1994koan, batez ere ahozkoa, apenas ageri den *zein...* erlatiborik (18 esaldi, beste izen ardatzaren ezkerretiko eta *-(e)n...* aposiziozko 792 esaldiren aldean: %2,2 baino ez; baina baita tartean ahozkoak ere). Medikantzakoan, aldiz, 208 dira *zein...* erlatiboak, bestelako 1.071ren aldean: %16,3 ere bai. Segidako grafiko eta tauletan datuak eta proportzioak:



1994ko corpusa	Kopur.	%
• Izen ardatzaren ezkerretiko erlatiboak (hautsi eta hautsigabeak)	652	80,5
• <i>-(e)n...</i> erlatibo aposatuak:	140	17,3
• <i>Zein...</i> erlatiboak:	18	2,2
DENERA:	810	100%

Medikantza	Kopur.	%
• Izen ardatzaren ezkerretiko erlatiboak (hautsi eta hautsigabeak)	971	75,9
• <i>-(e)n...</i> erlatibo aposatuak:	100	7,8
• <i>Zein...</i> erlatiboak:	208	16,3
DENERA:	1.279	100%


² Bata, 1994ko corpusa deitu duguna, ahozkoa bere 3/4etan (batez ere gaur eguneko testigantzek osatua –R. M. Pagolaren *Euskalkiz Euskalki*-koak; ETBko *Ados?* programako hiru eztabaida saioetakoak, osorik; eta bi euskaltzainen irrati elkarrizketa laburrak–; baina baita ere XIX. mendeko ahozko hizkeraren oihartzun diren J. F. Cerquand-en eta W. Webster-en ipuin bildumetako atalek). Beste laurdena, berriz, Axular, J. A. Mogel, J. B. Agirre, Duvoisin eta J. Etxepareren testuek osatua. Bigarren corpusa, berriz, *Medikantzakoa* deitu duguna, M. Aranburu eta M. Bago Agirre mediku jaunen 1899ko *Osasun Legeak eta Medikantzako Argibideak* liburuxkaren azterketa exhaustiboa. Corpus hauen ingurumarien detaile gehiagorako, ik Hidalgo 2002a, 1999, edo 1994.

Zein... erlatiboen pisu desberdina bi corpusetan, hauen osaera desberdina eragiten du zalantza gabe. 1994ko corpora batez ere gaur eguneko hegoaldeko ahozkoa da; bigarrena, berriz, hegoaldeko idatzia, justu *zein...* erlatiboak gaitzetsiak izan aurreko garaikoa³. Hala ere, 1.7. atalean jardungo dugu bi corpusetako desberdintasun azpian datzan balizko berdintasunaz.

1.2. *Zein...* erlatiboak eta esaldien luzera


Nolanahi, *zein...* erlatiboen distribuzioa, bi corpusetan ere, ez da batere orekatua esaldion luzerari begira. Gehientsuak baitira esaldi luze. 1994ko corpus txiki eta hainbat desitxuratu, %50 dira 5 edo osagai⁴ gehiagoko esaldiak⁵, eta %63 Medikantzian (banaketa orekatsuegan):

1994ko corpora



1994	0 osagai	Osagai 1	2 osagai	3 osagai	4 osagai	5 (edo +)	Denera
Kopurua:	1	2	5	0	1	9	18
%	5,6	11,1	27,8	0,0	5,6	50,0	100%

Medikantza



Medikantza	0 osagai	Osagai 1	2 osagai	3 osagai	4 osagai	5 (edo +)	Denera
Kopurua:	1	15	15	16	30	131	208
%	0,5	7,2	7,2	7,7	14,4	63,0	100%

³ Esan behar da, nolanahi, Medikantzako *zein...* erlatiboen ugaritasuna ez datorrela zuzenean gaztelaniazko testua itzuli nahi izatetik. Gehienez ez dute zerikusirik gaztelaniazko erlatiboek eta euskarazkoek, hain da eta libre euskarazko bertsioa. Beste gauza bat da, noski, egileek euskarazko errekurto zilegizat darabilte erlatibo mota hau, oso ongi datorkiena halako testu "tekniko jantzia" moldatzeko garaian.

⁴ Azterketan "osagaitzat" hartu dugu esaldi bakoitzeko sintagma minimoetako bakoitza *-(r)en*, *-(e)ko* izenlagunak barne). Baita juntagailu bidez koordinatutako sintagmetako bakoitza ere (*gizon handi eta ausartak* sintagmak bi "osagai" lituzke; koordinazio gabeko *gizon handi ausartak* bakarra). Mendeko esaldietan gainera, aditza ere, dagokion erlazio atzizkiarekin, osagaitzat hartu da. *Osagai* nozio hau, luzeraren nolabaiteko unitate neurgarri bezala erabili da soilik. Azterketan sail bere batean bildu dira 5 edo osagai gehiagoko esaldiak -5 (edo +)-.

⁵ 2 osagaiko 5 esaldi eskasek egiten dute %27,8 puztu hori.

Corpusetako esaldi gehienak luzeak baldin badira ere, badira tartean ondo laburrak. Hala segidakoak (lehen biak osagai gabeak; 3-5 osagai bakarrekoak; 6-7 binakoak):

- (1) ... bere ama propioaz amurustu zela: **bere ama bera, zeñen sabeletic iltki baitzen** ... (Ax §232)
- (2) ..., bada gaitzak oi ditu egun batetik bestera zenbait **mudantza zeñai begiratu bear zaioten**, ... (Med 34)
- (3) ... gaitz sortutzalle oetan badira **beste batzuek zeñai deitu diogun zapamorroak**, ... (Med 10)
- (4) ... bustiaz artarako dagoan usai gogorreko botika **gauza batekin zeña medikuari eskatu bear zaion**. (Med 28)
- (5) Naikoa izan oi da ipintzea bañua **ogeita zortzi gradutan zeñak joan litezkean jatxiaz** eta ... (Med 35)
- (6) Sinisten dezu: **aren Seme bacar Jesu-Cristo gure Jaunagan, ceña jayo, eta gurutzean il zan?** (JBAG, I, 86)
- (7) ... dauka ... bere asiera lekuan **zabaldur aldi bat, zeñatan sortzen dan egiten degun itza**, ... (Med 51)

1.3. *Zein...* erlatiboak idatzian, baina baita ere ahozkoan (are gure corpusean)

Egia da *zein...* erlatiboen adibide gehienak corpus idatzietakoak direla, baina baditugu ahozkoak ere. Hala, Sarako hiztunaren hurrengo (Euskalkiz euskalki, R. M. Pagola, 1984, 25):

- (8) ... eta nik eakutsiko izkizuet **leku batzu non e segur altxatuko duzuen erbiak**.

Halako adibide bakarra da guk aztertu gaur egungo ahozko corpusean. Baina badira halakoak XIX. mendeko Cerquand-en eta Webster-en ahozko ipuin bildumetan. Eta lehenenean inork ipuin biltzailearen eskua imajina nahi baleza ere, ez dirudi Webster-enean halakorik denik⁶:

- (9) ... behartzen zirozū juan **Jesūsen** undoan, **zuin estranger baten hürtzen** **beit zien**. (Cerq I-18)
- (10) Bidean errenkontratzen dizū **beste emazte bat** tobak eroatera juaiten ver büreueala, **zuini khuntatzen** **beit dü** *bere ixtoria*. (Cerq I-26)
- (11) ... hatxemaiten du artean **khurutzea**, **zoin hausten bait du** *bi phartetan*. (Cerq I-32)
- (12) ..., iseiatzen du haren atenezaren biltzea, «pst, pst» batez diskreta, lagundua **behatzaren ondoko erhiaren** kheinu batez, **zoin juan arazten bait du** *eskuinetan ezkerreerat*, ... (Cerq I-32)
- (13) ..., aitak ez zuen utzi nahi **etxetik** athera, **nun pasatu zituen** *hainbertze denborak*. (Web I-20)

1.4. *Bi ohar zein...* erlatiboen menderagailuez

Gure corpusetan jasotako adibide gehienek darabilte *zein...* izenordaina esaldi buruan, baina badira ere *non...* darabiltenak (ik. 8, 13 adib., ahozko hizkerari lotuak). Hauei erantsi behar, nahiz gure corpusean agertu ez, *noiz...* darabiltenak (ik. OEH, *noiz* 4 eta *noiz eta c*). EGLU-Vek oso zorrotz dio (221) *nor* eta *zer* izenordainak ez direla erabiltzen halako erlatiboak osa-

⁶ X. Arbelbidek jasotzen du Websteren ipuinen sarreran (1993, viii), honek J. Urkixori idatziriko hitzak (1907-III-19), non dioen: *Euskara entzun bezela idatzi dut eta ez gramatikaren arabera*.

tzeko. Eta hau, *nor*-en kasuan bederen, ez da erabat egia. OEHk ematen ditu (*nor*, 4) halako adibideak B. Etxeparerena (*nortan*), Etxeberri Ziburukoarenena (*noren*), Maytieren pregarrietakoa (*noren*), Astarloarenak (*norgaitik, noren* –bitan–), G. Arruerena (*norzaz*), Arrese Beitiarenak (*nok, nogana*), Mendigatxarena (*noren*) eta T. Etxebarriarena (*noren*). Eta pentsatzekoa da autore gehiagok ere erabili ote dituzten, nola Otaegi Beizamako erretoreak eskuizkribuetan (*zein...* izenordaina ere badarabilelarik; 1993, 181-3):

- (14) San Pabloc, norc aditzera ematen dituan *obligacio oriec guztia*, ... (256)
 (15) ... Jaincoac, norc eguin guinduan *bera amatzeco ta servitzeco*, ... (340)
 (16) Lenengo demonioa, nori deitzen zaion *gaiztoa*, ... (342)
 (17) ... Aita benetacoa, norgandik datorren *Seme benetacoa*, ... (348)
 (18) ... Jaincoac, norentzat ez dagoan *igaroco edo etorteco dan gauzaric*, ... (351)
 (19) ..., guizonaren ta emacumearen gorputzac, *norzuec obligatzen diran bata bestearen baiben ta ontzat ematearequin*; ... (256)
 (20) ..., eman deigula *graciaco erreinua, norequin*, ..., *erreinatzen duan Jaincoac anima justuetan* ... (322)

Baita G. Arrueren hurrengo ere behintzat, *nork ere* egituran (OEH *nor ere*):

- (21) Beste erdiak, *erlijiosoari* eman ziozkan, *nork ere*, ziran guziak apurtu eta putzura **bota zituen**.

1.4.1. Zein... erlatiboak aditz menderagailurik gabe

Bestalde, *zein...* erlatibo gehienek erakusten dute *-(e)n* edo *bait-* menderagailua aditzari josia, goiko adibideetan ikusi bezala, baina badira menderagailu gabeak ere, Medikantzan batez ere, baina baita ere Agirrerren corpus zatian. 8 esaldi 226tik (%3,5). Segidan batzuk:

- (22) ... Jesu-Cristoren leguean *icena* ipintzen da batayoco egunean *ceña ipintzea gurasoei dagote*, ... (JBAg, I-82)
 (23) ... gutxitu bear duala **zenbait extranjeriko nazioetan** gertatzen dan bezela, **zeñetan txertatuaren bidez jende guzia sei urtetik urtera, gaur ez da ezagutu ere egi ten naparrei edo baztangarik**, ... (Med 22)
 (24) ... **lan eta eginkizun aundiak, zeñak nolakoak diran jakiñ bear lituzke ez bakarrik medikuak**, ... (Med 26)
 (25) ... zulatzeiko **beso bakoitza** iru lekutan, **zeñatan au egiñ eta iru edo lau egunen barrunbean asitzen dira sentitzen txertatutakoak miñ pixka bat** ... (Med 48-9)
 (26) ... **sortu oi diran gaitzak, zeñak lenago esan degun bezela izan oi dira ugariak zergatik** ... (Med 52)
 (27) Gelditzen zaigu orain itzegitea **beste gaitz bat** zer nolakoa danaren gañean, **zeña naiz eta ipiñi degun guk asnasea artzeko tokietakoen artean, izan liteke ere beste edozein lekutakotzat artua**, ... (Med 57)
 (28) ... bear diran **loturak** egiñaz, **zeñaren gañean ez goaz gu leku onetan ezer geiago esatera** ... (Med 79)


Aditzari erantsitako menderagailu falta bera erakusten dute Lardizabalek (*zeinak ez bide duen inoiz erabiltzen*, cf. B. Urgell, 1995, LXX) eta Añibarrok (cf. B. Urgell, 2001, CVIII). OEHk joera bera aitortzen die Beriayni edo Mikoletari behintzat (ik. *nondik, non* sarrerak)⁷. Ez dugu arrazoi berezirik aur-

⁷ Ikus esateko Mikoletaren segidakoa: Ara-men *estuchea, non dago dustia orraziagas* (1653, 24).

kitu menderagailuaren galera bultza lezakeenik, ezpada legearen lasaitzea, antzeko kasuetan gertatu bide den eran (*zeren, zergatik* izenordainen ondoretiko esaldiak kasu)⁸.


1.5. Aditzaren gunea *zein...* erlatiboetan

EGLU-Vek dioenaren harian (223), galdetzailere bidezko erlatibo hauetan aditza oso nekez ematen da esaldi amaieran, eta gehienean esaldiak hautsita ageri dira, hainbat osagai emanez aditzaren eskuinetik. Hauek dira gure bi corpusetatik jasotako datuak eta grafikoa:



2 corpusen artekoa	Kopur.	%
Osagaidunak (2 dira osagaigabeak):	224	100%
Hautsigabeak:	12	5,4
Hautsiak:	212	94,6

Osagaika ere ez dira joerak asko bereizten. Esaldi laburrenatan ere erabateko gehiengo baitira esaldi hautsiak, nahiz hainbat amaitzen den aditzaz, segidako grafiko eta taulak erakutsi legean:



⁸ Ik. ere (80) adib. Larramendirena. Aurrerago aipatuko ditugu *-(e)n* atzizkiaren ordez *-(e)na* duten bi erlatibo, Medikantza eta Oiartzungoak. Nahaste hutsa dirudite funtzio bera beteko luketen *-(e)n...* aposizioen atzizkiarekin.

2 corpusen artekoa

	Denera		Hautsigabeak		Hautsia	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Osagai 1	17	7,6	2	11,8	15	88,2
2 osagai	20	8,9	6	30,0	14	70,0
3 osagai	16	7,1	3	18,7	13	81,2
4 osagai	31	13,8	0	0,0	31	100,0
5 (edo +)	140	62,5	1	0,7	139	99,3
Denera:	224	100%	12	5,4	212	94,6

Segidakoa 5 (edo +) osagaikoen artean aditzaz amaitu esaldi bakarra (ik. ere 4, 6, 9, 22 adib.):

(29) Usariyo au da **medikantza bat guztiz ongarria** eta **zeñaren oitura jende artean dagoan bañan gehiago zabaldurik egon bear lukeana.** (Med 59)⁹

Segidakoak hautsien adibide ohikoagoak (luze eta labur; ik. ere 8, 14, 20 edo 23-27 adib.):

(30) ... ebiltzala abarcacaz, **chapel batubaz**, **ceintzuc obago dirian buruba ta belarrijac berotuteco** ... (Mo 94)

(31) ...; eta azkenik **zardadea zeñaren bitartez beste askotan sortutzen diran gaitz oek.** (Med 72)

(32) ... **eskarlata** edo **besuteoa** izendatu degun gaitza, **zeñaren señalerik bearrenak adierazotzera goazen orain.** (Med 39)

1.5.1. Zein... erlatibozko esaldiaren aditza maiz hasieran

EGLU-Vek ere jaso moduan (223), *zein...* erlatiboek joera dute gainera aditza zuzenean emateko izenordain erlatiboaren ondore berean, esaldiko bigarren gunean, nahiz lege zorrotzik ez den. Gure corpusetako datuek diote hautsitako 212 esaldien artetik 123k daramala aditza hasierako izenordainaren ondo-ondotik (%58,0; 14tik 10ek 1994ko corpusean: %71,4; %57,1 Medikantzan). Orotara, 224 esaldi osagaidunen arteko %54,9. Erdia baino gehixeago. Nolanahi den, erlatibootan galdera zuzen edo zeharrekoetan baino maizago aurkitzen ditugu osagaiak tartekatuak galdetzailea eta aditzaren artean. Bestalde, esaldi laburragoek luzeagoek baino maizxeago daramate aditza izenordainaren ondo-ondotik, proportzioak gehiegi aldatu ezta ere:

2 corpusen artekoa

	Denera		Hautsigabeak		Hautsia	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
Osagai 1	15	7,1	0	0,0	15	100,0
2 osagai	14	6,6	5	35,7	9	64,3
3 osagai	13	6,1	4	30,7	9	69,2
4 osagai	31	14,6	14	45,2	17	54,8
5 (edo +)	139	65,6	66	47,5	73	52,5
Denera:	212	100%	89	42,0	123	58,0

⁹ Aipatu bezala, hau da Medikantzako kasu bakarra *-(e)na* atzizkia ematen dena *-(e)n* ordez.

Adibide batzuk, luze eta labur, segidan (ik. ere goiko 3, 5, 7 eta 10-13, 15-19 edo 28 adib.):

- (33) ... **zeure zapata batzuc, ceintzuc euquico** dituzun *gordeta jaiegunetan meza nagusira juateco*. (Mo 94)
 (34) ...; irugarren tartea da *larru azalean gaitz oetako edozein azaltzen danean esaten dioguna, zeña izendatzen dan gaitzaren azalduerakoa*; ... (Med 38)
 (35) ... **lendabiziko argibide oni zeña ipiñi degun liburu onen asieran** ... (Med 12)

1.6. Zein... erlatiboan erabileraz eta balioaz¹⁰

1.6.1. Zein... erlatiboak izen ardatz ongi mugatuen ondoretik¹¹

EGLU-Ven harian (235-240), guk ere uste dugu, *zein...* erlatiboak maizenik erabili ohi direla izen ardatz alde aurretik ongi mugatuen ondoretik, zentzu ez-murriztailean:

- (36) Hek eta halakoak dira **eskriba fariseoak bezala, zeñek konsentitzen baitzuten, egin ziazoten Iesu Kristo gure Salbatzaileari eta haren izen sainduari, heken etxe-koek eta bertze guztiek hanbat irri eta ...** (Ax §174)
 (37) **Bat bederaren konzientzia, zeinetan barrena baitago, bere buruzko ezagutza bat, iakiteko ...** (Ax §272)

1.6.1.1. Nahiz askotan hartzen duen *zein...* erlatiboak zentzu identifikatiboa, hurbil dagokeena zentzu murriztailetik (arruntki *izan* aditzaren flexioekin eta *zein* izenordea kasu absolutiboan):

- (38) Badu itsasoak **bere xedea, bere marra, bere mugarrria eta zedarrri iakina, zein baita kostea eta kostako sablea, harea eta legarra**. (Ax §75)
 (39) Zeren ikhusirik eztela bera sinhesteko, ekhartzen baititu **lekhukoak, zein baitira iuramentuak, ...** (Ax §177)
 (40) Zeren halatan begiratuko du **bigarren zensua eta portalea, zein baita ahoa, mihia, gustua, ...** (Ax §267)

Halakoetan izen ardatza da azalpena eta erlatiboak zehazten du hari dagokion izen edo objektu bakar bat, edo batzuk, litezkeen guztien artean.

1.6.1.2. *Zein...* erlatiboak ematen dira berez jada murriztu eta mugatu diren izen ardatzen ondoren ere (izen propio eta antzeko):

- (41) ...: **bere ama bera, zeñen sabeletik iltki baitzen, ...** (Ax §232)
 (42) ... baita jan ostian bere eskuerrac emon **Jangoicuari, ceñen escubetati jatorcu-zan on guztia**. (Mo 56)

1.6.1.3. Baita ere maiz ardatza izenondo edo -lagunez murriztua denean (ik. ere 36-8, 40-1):

- (43) Nola ageri baita Ejiptoko Piramidetan, **zein eragin baitzituen errege Faraonek, ...** (Ax. §15)
 (44) ... ezpaitira oraiño bethe eta konplitu **Amorroen bekhatuak, zeinek baitadukate herri hura**. (Ax §82)

¹⁰ EGLU-Ven ikus litezke, aipatuez gain, esaldion inguruko beste hainbat ezaugarri morfologiko, semantiko edo sintaktiko. Bai eta ere Alberdi eta Garcarien lanetan (bibliografian aipatuak).

¹¹ EGLU-Vek dioen bezala (235, oin oharra), badira tradizioan izen buru soil determinatu gabeen ondoren emaniko *zein...* erlatibo zenbait, nahiz urri (*Haran, zeina deitzen baita Laburdi*, J. Etxeberri, 1907, 160).

1.6.1.4. Edota izen ardatza jada beste erlatibo batek ere murriztua denean (dela hau ezkerretiko arrunta edo *-(e)n...* aposatua), eta maiz lekuz aldagarria dena *zein...* erlatiboarekin:

- (45) ... ; eta *hartarik* sortzen den bihia, *hark* emaiten duen fruitua; *zein* baita, *bekhatutan itsutzea*, ... (Ax §66)
 (46) ... *guretzat ordenaturik eta prestatu*rik dagoen bozkarioa, *zein* baita *zeruko loria*. (Ax §100)
 (47) Zeren *bekhatu*rik gabe *zeneundenean* egin zinituen obra onak, *zein* baitziren *obra biziak*, ... (Ax §347)

1.6.1.5. Maiz izen ardatza erakusle soil batek mugatzen duenean, noiz bereziki suma litekeen *zein...* erlatiboaren balio murrizgarria:

- (48) ... hurbildu gabe *urthe hek*, *zeinengatik datozinean* erranen baituzu: *eztira ene gogarako*. (Ax §115)
 (49) ..., eta halakoak dira *hirur bekhatu* suerte hauk, *zeinetzaz mintzo* baikara *presenteon*. (Ax §128)
 (50) Bada *tenploko kutxa*, *untzi* edo *kopa hartan*, *zein iuduek* deitzen baitzuten, *gazophislatium*, ... (Ax §152)
 (51) ...; orduan *emazte hari*, *zeinekin behar ezten ezagutza* izatu baituzu, ... (Ax §246)
 (52) ... eta zu zarela *iende hetarik*, *zeinengatik erraiten* baitu *Sofonias Profetak*: ... (Ax §361)

1.6.2. Zein... erlatiboak izen ardatz mugagabeen ondoren zentzu murrizgarrian

Eta izan ere, *zein...* erlatiboak maiz erabili ohi dira euskal tradizioan zentzu murrizgarrian, izen ardatzak determinatzaile mugagabe bat duenean (erakuslea duenean legez, ik. 1.6.1.5.):

- (53) ... *arrazoin bat*, are klaragoa eta aditzeko errazagoa, *zein* baita *usantza*, *segientza*, ... (Ax §71)
 (54) ... *San Mateo Ebanjelistak ibentzen duen konparazio bat*, *zeinetzaz frogatzen* baita, *bekhatuetan bezala*, *obra onetan ere*, *neurria betha arteño*, eta *zorhi arteño*, *igurikitzen duela Iainkoak*. (Ax §79)
 (55) Badira *bisera batzuk*, *begi-ordethaillu batzuk*, *zeiniek gauzak diren baiño handiago*, *iduri arazitzen* baitituzte. (Ax §94)
 (56) ... kalte handi hunen erremediatzeko, ediren zuen Iainkoak *bide bat*, *zein baita iuramentua*. (Ax §168)
 (57) ... ilkitzen da *khe bat*, *lanbo bat*, *zeinek*, *poetak dioen bezala*, *itsutzen* baitu *adimendua*: ... (Ax §193)
 (58) Gorputz au da *arbola bat* leguez, *ceñec daucazan troncu*, ta *adarrac?* (Mo 84)
 (59) Hortaz bertzalde, bada *bat* oraino, *zeinari ez-baitzare ohartzen* (Duv 87)
 (60) ... ez da gelditzen *lau besanga* baizik *zeinetarik atheratzen* baitira *gando berriak egurretako*. (Duv 189)

1.6.3. Izen ardatz mugatuak balio generikoa duenean

Hala dio arrazoinez EGLU-Vek (237-8), bestek beste segidako adibidea erakutsiz:

- (61) Purgatorio handi eta sendagarri bat du *gizon pazientziatsuak*, *zeinak bidegabetzatua denean damu geiago* baitu bertzeren maliziaz bere atsekabez baino (S. Pouvreau, *Imitationea*, 68)

1.6.4. Zein... erlatiboaren aurrekari esaldi oso bat izan liteke¹²

- (62) ... eta hartan emaiten baituzu aditzera, **Iainko hura dela egiatia, eta gauza guztien berri dakiena, zein baita ohore handia Iainkoarentzat, ...** (Ax §168)
- (63) Zeren Iainkoa izendatuki, **gezuraren aithor eta lekhuko ekhartzen baita: zein baita bekhatu handia eta itsusia.** (Ax §170)
- (64) Baiña pazientki pairatzen duzu, zeren baitakizu ezen **burdina hura erabiltzen duen barberaren intenzioea eta borondatea ona dela, zein baita prinzipala.** (Ax §205)
- (65) Zeren iende **gaixto batzuek, lehen nitzaz gaizki erraiten zutenek, erraiten omen dute orai ongi. Zein baita seiñale gaixtoa.** (Ax §291)

1.6.5. Nekez zentzu murriztailean izen ardatz mugatuaren ondoren kasu arruntenetan

EGLU-Vek dioen harian, nekez erabili ohi dira *zein...* erlatiboak izen ardatz soil mugatu baten ondoren zentzu murriztailean kasu arruntenetan (*zeina, zeinak, zeinari*), nahiz salbuespen aipatu behar ditugun berriro 1.6.1.1.eko erlatibo identifikatiboen itxurakoak:

- (66) ..., halako izanen da halaber **bizitzearen bazterra, eta akhabatzea ere, zein baita heriotzea.** (Ax §143)

1.6.6. Baina erabilera murriztailea ere arrunta(goa) izenordain erlatiboen beste kasuetan

Erabilera murriztailea arruntagoa bihurtzen da izenordain erlatiboak kasu marka adverbial bat duenean edo posposizio batekin erabilia denean (*zeinetan, zeinetatik, zeinekin, zeinengatik, ...*), nola ikusi litekeen segidako adibideak bezalakoetan (ik. ere EGLU-V, 239):

- (67) Zeren nolako baita **lurra, zeinetarik iragaiten baita ura**, halako gerthatzen baita ura ere. (Ax §143)
- (68) Zeren hauk dira **leihoak eta portaleak, zeinetarik bekhatu guztiak, eta guztiz ere haragiarenak, ariman barrena sartzen baitira.** (Ax §256)
- (69) Zeren tristura handia errezibituko dute, noiz eta **bere lagunak, zeinekin bekhatu egin baitzuten**, eta **zeinengatik galdu baitziren**, ikhusten baitituzte bere begien aitzinean. (Ax §377)¹³
- (70) Badira **tokiak**, hala nola Lorrena, **zeinetan** belharrak iguzkiztatu-gabe **idorrazten baitituzte.** (Duv 91)
- (71) ..., **tokiak** badira **zeinetan** lasterrago **bakhandatu behar baita.** (Duv 172)

Gogoratu behar da, gainera, kasuotako hainbatetan (*zeinen, zeinekin, zeinentzat, zeinengatik, zeinetaz, zeinetaraino, ...*) euskarazko tradizioak ez ohi duela beste biderik erlatiboak osatzeko (kasu paralelismoan salbu), izan hauek murriztaile, ez-murriztaile, mugagarri edo ez-mugagarri.

1.6.7. Nolanahi aposiziorako joera da erlatibo luzeetan

Esandakoak esanda, eta salbuespenak salbuespen, balirudike, izen ardatzaren ezkerretiko erlatiboek, maizenik murriztaile, eta *zein...* erlatiboek, maizenik ez-murriztaile, distribuzio osagarria erakutsi beharko luketela, eta hala interpretatu da azken hamarkadotan. Hau da, oro har, ezkerretiko erla-

¹² *bait-* eta *-(e)n...* erlatiboek ere egin ohi duten bezalaxe (ik. ere EGLU-V, 246-7).

¹³ Esaldian ohargarria da gainera *noiz eta ... bait-* denborazko egitura. Ik. aurrerago 1.10. 2. atala.

tiboak erabiliko lirateke izen ardatzaren balioa murriztu nahi denean (edo eta mugatu). Aldiz, *zein...* erlatiboak, balio ez-murriztaileko erlatiboak emateko (edo ez-mugagarri). Eta hori egia balitz, *zein...* erlatiboek eta ezkerretikoek proportzio bertsuan agertu beharko lukete erlatiboan luzera zeinahi izanda ere. Hori, ordea, ez da horrela. Oso bestela baizik.

1994 corpusean *zein...* erlatiboan pisu orokorra txikia izanda ere (%2,7), hauen pisu erlatiboa nabarmen igotzen da osagai gabeko edo bakarreko erlatiboetatik (%0,1), 5 (edo +) osagaiko erlatiboetara (% 25,7). Proportzio hauek are garbiagoak dira Medikantzako corpusean. Oro har, *zein...* erlatiboan pisua %17,6koa izaki, proportzio hau %0,6 eta %4,7tik igotzen da (osagai gabeko edo bakarrekoen artean) %42,3 eta %58,2ra 4 eta 5 (edo +) osagaiko erlatiboan artean. Hala, erlatibo luzeenen artean gehiago dira *zein...* erlatiboak, ezkerretikoak baino, eta hori bada zerbaiten seinale. Segidako taula eta grafikoan ikus litezke datuak zehatzago:

1994ko corpusa

	Denera		Ezkerretikoak		<i>Zein...</i> erlatiboak	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
0 osagai	141	21,0	140	99,3	1	0,1
Osagai 1	281	41,9	279	99,3	2	0,1
2 osagai	142	21,2	137	96,5	5	3,5
3 osagai	53	7,9	53	100,0	0	0,0
4 osagai	18	2,7	17	94,4	1	5,6
5 (edo +)	35	5,2	26	74,3	9	25,7
Denera:	670	100%	652	97,3	18	2,7


Medikantza

	Denera		Ezkerretikoak		<i>Zein...</i> erlatiboak	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
0 osagai	169	14,3	168	99,4	1	0,6
Osagai 1	321	27,2	306	95,3	15	4,7
2 osagai	296	25,1	281	94,9	15	5,1
3 osagai	97	8,2	81	83,5	16	16,5
4 osagai	71	6,0	41	57,7	30	42,3
5 (edo +)	225	19,1	94	41,8	131	58,2
Denera:	1.179	100%	971	82,4	208	17,6

2 corpusen artekoa

	Denera		Ezkerretikoak		<i>Zein...</i> erlatiboak	
	Kopur.	%	Kopur.	%	Kopur.	%
0 osagai	310	16,8	308	99,4	2	0,6
Osagai 1	602	32,6	585	97,2	17	2,8
2 osagai	438	23,7	418	95,4	20	4,6
3 osagai	150	8,1	134	89,3	16	10,7
4 osagai	89	4,8	58	65,2	31	34,8
5 (edo +)	260	14,1	120	46,2	140	53,8
Denera:	1.849	100%	1.623	87,8	226	12,2

Ezkerretiko erlatiboak eta zein... erlatiboen distribuzioa osagaika:



Hala bada, erlatiboon erabileraz eta balioez esanak esanda ere, badirudi erlatiboen luzerak eta konplexutasunak beren garrantzia dutela euskal hiztun/idazleak erabakitzeko garaian erlatibook egitura batean edo bestean antolatuko dituen. Eta hau beti da kontuan hartzekoa.

1.6.8. Zein... erlatiboen bidezko erlatibo kateak

Zein... erlatiboen jokabide aposatuak izen ardatzaren ondorenetik, ahalbidetzen du erlatibozko esaldi kate luzeak osatzea izen ardatzaren eskuinetik (ardatz bere bati edo erreskadakoei dagozkienak), ulergarritasun traba gabe, ezkerretiko erlatiboen pilaketak bai eragiten duen eran¹⁴:

- (72) ... baliyatzten dira onetarako **orain esatera** goazen modu batez **zeñarekin arropak ongi garbitzen diran gelditzen dirala zurutuak**, eta **zeña ona dan jakitea etxe koandre eta jende langilleak**. (Med 27)
- (73) ... merkeena da **kare bizi itzalitakoa zeñetatik asko dan pitxar pare bat nastutzea beste zortzi pitxar urekiñ** eta (**zeñak**) **daukan gauza bat zeñarekin egiñ lezazkean garbitasun guziak nola diran etxeko paretak eta lurra, kañuak, gaxoak botatzen dituan zikinkeriak**, eta beste **premiya daukaten gauza guziak**; ... (Med 28)
- (74) ..., bada gaitzak oi ditu egun batetik bestera **zenbait mudantza zeñai begiratu bear zaioten**, eta **zeñak eskatzen duten bakoitzak beretzat erremedio jakin bana**. (Med 34)
- (75) ...: azkenik dauka berriz zinzurrak bere asiera lekuan **zabaldu aldi bat, zeñatan sortzen dan egiten degun itza, zeña izendatzen dan eztarria**. (Med 51)
- (76) ... daukagu euskal-erri gurean **txit antziñako denboretatik paraje oetan eza gutzen dan joku bat zeña dan pelota jokua** eta **zeñaren bitartez** eta mendiko ibilleraren bitartez (geiegikorik egin gabe), **daukan gure parajeetako jendeak birikak indartzeko izan litekean gauzarik egokiena**; ... (Med 58)
- (77) Beste gaxo onetarako bat da **emakumeak izan oi dutena geienenbat, zeñari deritzaion historikoa**, eta **zeña azaldutzen dan asi-aldi gogorrakin batzuetan, igerotzen dituela orduan orain esatera goazen gauza oetakoren bat edo beste, eta iñoiz baita ere guziak batera**. (Med 70)
- (78) ...; eta au ez orrela izanik, **auntz edo beiaarena, zeñetatikan datozen umea azitzeko bi izate, zeñaren gañean esango ditugun itz bi amargarren argibide au bukatutzeko**. (Med 85)

¹⁴ *-(e)n...*erlatibo aposatuekin ikusi modu berean (Hidalgo 2002b), eta maiz *zein...* eta *-(e)n...* erlatiboak uztartuz.


Gaur eguneko ikuspegitik zail da imajinatzea zer-nolako astindua eragin zaion euskal prosari, euskal esaldiari, *zein...* erlatiboak gaitzetsiaz, eta oro har ezinduz erlatiboen izen ardatzaren eskuinetiko garatzea. Zer nolako dislokazioetara eta ezinetara behartu dugun hala gure hizkuntza. Baina adibide ona izan liteke saiatzea goiko esaldiok ematen ezkerretiko erlatibo hutsez (esateko (73) edo (76)). Gaitzeko salaketa gogoangarria egiten du Villasantek ere (1974).

1.7. Hipotesi erakargarri bat izen ardatz determinatuen eskuinetiko erlatiboez

Kopuru bateratuari begira, izen ardatz determinatuen eskuinetiko erlatiboak *-(e)n...* eta *zein...* erlatiboak bateratuak) %22,3 dira. 5 erlatibotik 1 baino gehixeago, ezkerretiko erlatiboen %77,7ren aldean, aztertu bi corpusetan. Erdibanatuta hauek, gutxi gorabehera, *-(e)n...* erlatibo (%11,5), eta *zein...* erlatiboaren artean (%10,8), segidako taulan ikus litekeen bezala:

	2 corpusen artean	Kopur.	%
• Izen ardatzaren ezkerretiko erlatiboak (hautsi eta hautsigabeak)		1.623	77,7
• Osorik izen ardatz determinatuaren eskuinetiko erlatiboak:		466	22,3
• <i>-(e)n...</i> erlatibo aposatuak:		240	11,5
• <i>Zein...</i> erlatiboak:		226	10,8
DENERA:		2.089	100%

Ordea, bi corpusetako datuak zeharo desberdinak dira *-(e)n...* eta *zein...* erlatiboaren banaketan. 1994koan *-(e)n...* erlatiboak dira eskuinetiko erlatiboaren %88,6 (%17,3 proportzio absolutuetan), eta Medikantzan %32,5 baino ez (%7,8 proportzio absolutuetan). 1994koan %11,4 dira *zein...* erlatiboak (%2,2 proportzio absolutuetan), eta Medikantzan %67,5 (%16,3 proportzio absolutuetan), segidan ikus litekeen bezala (1.1. ataleko datu berak bateratuz)¹⁵:



¹⁵ Tauletan bi zutabe ematen dira proportzioekin. Lehenean (%*abs.*) erlatibo mota bakoitzaren pisu absolutuaz ari gara anartean aztertu erlatiboaren artean. Bigarreanean (%*erl.*), egituron pisu erlatiboaz izen ardatz determinatuaren eskuinetikoen artean. Aztertu gabe artean izen ardatz soil determinatu gabearen ondoretiko erlatiboak.

1994ko corpusa	Kopur.	%	
• Izen ardatzaren ezkerretiko erlatiboak (hautsi eta hautsigabeak):	652	80,5	
• Osorik izen ardatz determinatuaren eskuinetiko erlatiboak:	158	19,5	%erl
• <i>-(e)n...</i> erlatibo aposatuak:	140	17,3	88,6
• <i>Zein...</i> erlatiboak:	18	2,2	11,4
DENERA:	810	100%	

Medikantza	Kopur.	%	
• Izen ardatzaren ezkerretiko erlatiboak (hautsi eta hautsigabeak):	971	75,9	
• Osorik izen ardatz determinatuaren eskuinetiko erlatiboak:	308	24,1	%erl
• <i>-(e)n...</i> erlatibo aposatuak:	100	7,8	32,5
• <i>Zein...</i> erlatiboak:	208	16,3	67,5
DENERA:	1.279	100%	

Esan bezala, ordea, oso antzekoa da osorik izen ardatz determinatuen eskuinetiko erlatiboaren pisua bi corpusetan. 5 edo 4 esalditik 1 (%19,5; %24,1). Datuak ba al du esanahirik? EGLU-Vek apenas aipatzen duen bi erlatibo moton arteko parekotasunik, tarteka bien apositibotasuna aitortu arren, eta segidako adibideen “egitura paraleloa” aipatu, *zein...*erlatibo gibeleratuez ari delarik:

- (79) a. Goizean **liburu bat** irakurri dut [*biziki gustatu zaidana*]
 b. Goizean **liburu bat** irakurri dut [*zein biziki gustatu baitzait*]

Gainerakoan, zeharo egitura desberdin bezala tratatzen ditu¹⁶. Hainbestera, non arrazoia asmatu ezinda, izen desberdina emango zaien egitura batzuen eta besteen izen ardatzei, nahasketa eta ezberdintasuna areagotu nahiz edo: *kanpoko ardatza*, *-(e)n...* aposizioen kasuan (2.2.14.1); *aurrekaria*, *zein...* (eta *bait-*) erlatiboenean (2.3.1; 2.4.5.). Gure ikuspegia bestelakoa da. Eta hipotesia besterik izango ez bada ere, pentsatuko dugu, euskal hiztunak, komunikazioaren beharrek bultzatuta(-edo), beti eman ohi, nahi edo behar izan dituela erlatibo zenbait (gure corpusetako erlatiboaren %22,3 horiek), eta bereziki luzeenak, hauen izen ardatz determinatuen ondoretik. Eta hori hala izan ohi dela aho zein idatzizko erregistro guztietan. Hau da, hiztunak, bategatik edo bestegatik, tarteka baduela bere jardunean izen ardatz bat aipatu beharra, hau erlatiboazko egitura baten bidez definituko duten ezaugarri aposatuak eman aurretik ere¹⁷, nahiz euskaraz alderantzizkoa izan ohikoago zenbait baldintzatan. Eta egitura aposatu hori gauzatzeko

¹⁶ Baita *bait-* erlatibo aposatuak ere. EGLUk hiruren egitura gramatikal desberdinari begiratzen dio soilik, eta ez hirurek komunikazioan jokatzeko duten eginkizun berari.


¹⁷ Eztabaidagai zein arrazoik bultzatzen duten hiztuna zehatz halako egitura aposatuak aukeratzera.

garaian hiztuna ez da modu bakar batez baliatu ohi. Hiruz baizik¹⁸: *-(e)n...*, *zein...* eta *bait-* erlatibo apositiboak¹⁹. Hiru baliabideak nasai erabiltzen diren garai, euskalki eta erregistroetan, hiztunak hirurak izango ditu aukeran²⁰, eta hori gerta liteke, are gaur egun ere, ipar ekialdeko erregistro jantziatan. Aldiz, hiru baliabide horietako bakarra erabiltzen den erregistroetan (gaur eguneko hego mendebaleko ahozko hizkera arruntean, *-(e)n...* aposizioa baino ez da erabiltzen ia), hiztunak baliabide soil honen bidez beteiko du izen ardatz determinatuen ondotik eman beharrean sentituko duen erlatiboen eremu osoa, eta ez txikiago bat; edo bederen askoz txikiago bat. Hipotesia egia izatera, garrantzitsua izan liteke. 5 erlatibotik 1 inguru eman bide baita, modu batera edo bestera, izen ardatz determinatuaren eskuinetik. Kopuru inola ere ez mesprezagarria²¹.

1.7.1. Izen ardatz determinatuen eskuinetiko erlatiboak (*zein...* eta *-(e)n...*) osagaika

Izen ardatz determinatuen ondotiko erlatiboak, oro har, ugaltzen dira esaldion luzerarekin bat. *Zein...* eta *-(e)n...* erlatiboek, nolana, proportzio desberdinak erakusten dituzte osagaika corpus bakoitzean. Hala ikus liteke segidako grafiko eta tauletan²²:

Izen ardatz determinatuaren ondotiko erlatiboak osagaika 1994 corpusean



¹⁸ Nahiz, euskal hiztunak erlatibozko egiturez gain, beste zenbait egitura kausal edo bestelako ere baliatu bide dituen zeregin bertsuetarako. Hemen ez gara hauetaz arduratuko, baina ik., esaterako, Biguri 1994.

¹⁹ Izen ardatz soil determinatu gabeen ondoretiko erlatiboek gain, artikulatu sail honen IV. ean aztertuko ditugunak.

²⁰ Gu orain ez gara gai hiru baliabideon erabilera eremuak konparagarriki zehazteko.


²¹ Anekdotak baino ez bada ere, EGLU-Veko erlatiboek buruzko sarreran (2.1.), adibideak alde bat utzita, 29 erlatibo ematen dira izen ardatz bati lotuta (1 *-(e)n bezala* ardatz berezia), eta 8 dira *-(e)n...* erlatibo aposituak (ez da, ez *zein...*, ez *bait-* erlatiborik). Izen ardatz determinatuen ondoko erlatiboak (*-(e)n...* erlatiboak), %28,6 dira.

²² Tauletan, lehen zutabeek izen ardatz determinatuen inguru emaniko erlatibo kopuru osoa ematen dute osagaika, eta bigarrenak hauen arteko proportzioak. 3. zutabeek, ezkerretiko erlatiboek kopuru osoa osagaika (hautsi eta hautsigabeak batera), eta 4.ak hauen proportzioa osagai kopuru horretarako erlatiboek artean. 5. eta 6.ak, berriz, osagaika izen ardatz determinatuen ondoretik emaniko erlatiboek kopuru eta proportzio bateratuak (*zein...* eta *-(e)n...* erlatiboak). 7. eta 8. zutabeek gauza bera, soilik *-(e)n...* bidezko erlatiboek inguru. 9. eta 10. zutabeek, azkenik, gauza bera *zein...* erlatiboek inguru.

1994ko corpusa

1994	Denera		Ezkerretiko erl.		IA det. ond.		-(e)n...		Zein...	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
0 osag.	154	19,0	140	90,9	14	9,1	13	8,4	1	0,6
Osag. 1	332	41,0	279	84,0	53	16,0	51	15,4	2	0,6
2 osag.	172	21,2	137	79,7	35	20,3	30	17,4	5	2,9
3 osag.	66	8,1	53	80,3	13	19,7	13	19,7	0	0,0
4 osag.	33	4,1	17	51,5	16	48,5	15	45,5	1	3,0
5 (edo +)	53	6,5	26	49,1	27	50,9	18	34,0	9	17,0
Denera:	810	100%	652	80,5	158	19,5	140	17,3	18	2,2


Izen ardatz determinatuaren ondotiko erlatiboak osagaika Medikantzan



Medikantza

Mendik	Denera		Ezkerretiko erl.		IA det. ond.		-(e)n...		Zein...	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
0 osag.	171	13,4	168	98,2	3	1,8	2	1,2	1	0,6
Osag. 1	335	26,2	306	91,3	29	8,7	14	4,2	15	4,5
2 osag.	320	25,0	281	87,8	39	12,2	24	7,5	15	4,7
3 osag.	114	8,9	81	71,1	33	28,9	17	14,9	16	14,0
4 osag.	82	6,4	41	50,0	41	50,0	11	13,4	30	36,6
5 (edo +)	257	20,1	94	36,6	163	63,4	32	12,5	131	51,0
Denera:	1.279	100%	971	75,9	308	24,1	100	7,8	208	16,3

Izen ardatz determinatuaren ondotiko erlatiboak osagaika 2 corpusen artean



2 corpusen artekoa

2 corpus	Denera		Ezkerretiko erl.		IA det. ond.		-(e)n...		Zein...	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
0 osag.	325	15,6	308	94,8	17	5,2	15	4,6	2	0,6
Osag. 1	667	31,9	585	87,7	82	12,3	65	9,7	17	2,5
2 osag.	492	23,6	418	85,0	74	15,0	54	11,0	20	4,1
3 osag.	180	8,6	134	74,4	46	25,6	30	16,7	16	8,9
4 osag.	115	5,5	58	50,4	57	49,6	26	22,6	31	27,0
5 (edo +)	310	14,8	120	38,7	190	61,3	50	16,1	140	45,2
Denera:	2.089	100%	1.623	77,7	466	22,3	240	11,5	226	10,8

Erlatiboen bostena inguru (%22,3) ematen da izen ardatz determinatua-
ren ondoretik (%19,5 1994koan; %24,1 Medikantzan). Baina areago hartu
behar da kontuan fenomenoaren erlatibo ez hain laburretan. 3 osagaikoetan, ba-
tez beste, erlatibo guztien laurdena dira jada (%25,6). 4koen artean, erdia
(%49,6). Eta 5 (edo +) osagaikoen artean, 10etik 6 baino gehiago ematen di-
ra izen ardatz determinatua-ren eskuinetara (%61,3). Esaldi laburren artean,
berriz, azpimarragarria da, *zein...* erlatiboak ezer gutxi ageri direnean (%0,6;
%2,5; %4,1; batez beste, 0, 1 edo 2 osagaikoen artean), *-(e)n...* erlatiboak
proportzio nabarmenetan ageri direla: %4,6; %9,7 eta %11,0; hurrenez hur-
ren, 0, 1 eta 2 osagaikoen artean. Baina hain desberdina izaki bi corpusen
jokaera *zein...* erlatiboen aurrean, banan-banan begiratu behar zaio datu ba-
koitzari.

1.8. Zenbait ohar *zein...* erlatiboen eta antizeinismoaren historian

Zein... erlatiboen erabilera lehen euskal testuetatik da ezagun (Etxepare,
Leizarraga, ...). Gramatika lan batean, Oihartzabalek gogoratu bezala (1987,
300), Etxeberri Sarakoak aurkezten du egitura lehendabizikoz latinezko *sum*
aditza *relativoarequin conjugatua* erakustean, segidako esaldi pareak emanez
euskaraz baliokide (1712, 168): *Ni naicena, edo ni ceina bainaiz, ... Hi aice-
na, edo hi ceina baitaiz, ... Hura dena, edo hura ceina baita, ...* Eta berdint-
tsu aurreraxeago *Lehenbico conjugacinoa*-ri legokiokeen *maitatu* aditzarekin
(180, *Relativo qui, quæ, quod, junturic verboari*): *Nic ceinac maitatcen baitut.*
Hic ceinac ... Urte batzuk geroago Larramendik agerian aipatu eta defendatu-
tuko du bere gramatikan egituron erabilera, “zehir kasuetan” bederen (age-
rian genitiboa, datiboa eta ablatiboa aipatuz), eta adibideok ematen (1729,
273):

(80) *eché au, ceñarén zu bidé zerá jabe* [aditzari erantsiriko menderagailurik gabe]

(81) *eliz au, ceñari emán-cioten guré gurásoac ain beste urré*

Bestelakoan, ezkerretiko erlatibo arruntak proposatuko ditu, nahiz aurre-
rago onartu ere bai aldi berean *zein...* erlatiboen erabilera, absolutibo eta er-
gatiborako, segidako adibidearekin (279):

(82) *sagarrá, ceñac min eguín-didan, gaztegui zan* [menderagailuz, eta *min eguin-
didán sagarrá*-ren aldean]

Larramendik, bestela ere, lasai jaso eta errebindikatzen du aurre-parriku-
len erabilera orokorra mendeko esaldi sail desberdinetan. Hala, konpletiboe-

tan: *ecen, ece, ce* (272-3 eta 307-8); zehar galderetan: *ea* (309-10); kontsekuti-boetan: *non/nun* (*ut* latinoaren pare eta...-(*e*)n atzizki gabe), edo *ecen, ece* (...-(*e*)la atzizkiaz) (310-1); kausaletan: *ceren, cerren, cergatic* (eta ...-(*e*)n atzizkia) (313-4). Denborazkoetarako, ordea, Larramendik kurioski espres gaitzestesten du *noiz* (*eta*) egituraren erabilera galderatik kanpo (316), nahiz gero arazorik gabe erabiliko duen egitura idazlanetan (nola bere jarraitzaile Mendiburu edo Kardaberazek), segidako adibideetan ikus litekeen bezala (*noiz* (*eta*) egiturarekin; edo antzeko *nori* edo *non* *eta*):

- (83) Eztezu hau ceréz: Jaincoaren doaya dezu, **noiz ta nori nai duen** ematen diona. (1990, 34)
- (84) ...; **noiz-eta** *Jaincoac icusirican burrucañ biac, erdian bitarteturic, aparterazoco zituen, ...* (1990, 62)
- (85) ..., **noiz-da** *bat-batean agertzen dan munduan San Agustiñ-en argia, aiñ bizi, aiñ andi, ...* (1990, 65)
- (86) (Noiz eguin bear dezu señale hori?) **Noiz eta** *eguitereñ bat asitzen degun, edo icusten gueran bearren batean, tentacio ta perilleañ; ...* (1990, 93)
- (87) (Noiz dira horien contra?) **Noiz eta** *Jaincoaren edo Elizaren aguinteren bat gauza graveañ ausitzen dan.* (1990, 104)
- (88) ...; batézere **non** *eta* *Jesúsen ballera santuac jasó dituzun, ta lenago jasoac ceuden.* (1990, 37)
- (89) ..., edó **non** *eta* **dezún** *zuré biotza, anche* *dézu* *zure gauza ónen gordairua, edó non ta dezún* *zuré gauza preciatuen gordairua, an* *ere* *dézu* *zuré biotza.* (1990, 78)

Lardizabalek gero, hitzez hitz errepikatuko ditu bere gramatikan (1856) Larramendiren esanak; eta halaxe egingo du van Eysek ere, nola edo hala, bere bietan (1867; 1879)²³. Intxauspek agerian aurkezten ditu berak *intzidentziazko* formak edo deitzen dituenak (1858, 6):

- (90) ... **María zóin izan béita** ...
- (91) órhit zíte **Jínkoaz zóinec ikhousten béitutu**
Aldi berean defendatuko ditu galdegile bidezko erlatibo libreak (*ere*-dun eta gabeko formez):
- (92) **nón** *ere* **béita** *zouire tresóra*
- (93) **zóinec ikhousten béitutu**

Eta liburu osoan zehar azaltzen ditu aditzaren delako *intzidentziazko* forma *beit*-dunak. Gèzek ere *nour, zóuñ* eta *cer* saileko izenordeak agertzen ditu erlatiboen sailean (1873, 64), nahiz usuzkoagotzat eman ezkerretiko erlatibo arrunta (*eri den gizounaren ohia*), edota are berau izen ardatz soil determinatu gabearen ondorean emana (*gizoun eri denaren ohia*)²⁴. Ithurrik ere agertzen ditu *zein*... erlatiboak bere gramatikan (1895, 20)²⁵:

- (94) **Adiskidea zeina zurekin baita**
- (95) **Gure Aita zeina zeruetan baitzare**

Baina Ithurrik (Hiriart-Urrutik?) jada agerian gomendatzen du horien ordezeko adjektiboen erabilpena, edota *-(e)n*... aposizioena (*Zurekilako adis-*

²³ Nahiz 1873an kontra egingo duen. Ikus aurrerago oharra.

²⁴ Azken huez arituko gara artikulu sail honen laugarrenean.

²⁵ Baita Kanpionek ere bere gramatikan (1884, 170-2 eta 768), non, Hovelacque, Vinson eta Van Eysekin borroka agerian, aurkezten dituen segidako esaldiak: **sagarra, zeñak min egin didan** gaziegi zan (171; Larramendirena, ik (82)); ikusi det **basoa zentan ostoak arkitzen dituen** (171); **gizona, zeña atzo etorri zen** (768); **emakumea, zeñak erosi duen echea** (768).

kidea, Gure Aita zeruetan zarena). Eta izan ere, garai horretarako hasiak dira zabaltzen gure artean aitorten antizeinista sutsuak, zeinak harrigarri bada ere, ez datozen lehenik hegoaldeetik, gero horren usu bezala, baizik eta jakintsu europarren eskutik gure iparraldera. Lehena, dakigularik, Hovelacque hizkuntzalariarena izango da, dioelarik (1877, 160-1): *Point de pronoms relatifs* [euskaran]; *pour imiter les Français ou les Espagnols, les Basques modernes ont employé souvent avec le sens relatif les pronoms interrogatifs; mais cela est absolument contraire au génie même de leur langue*. Eta 1877an berean egingo du baieztapen bera, Hovelacqueren adiskide eta euskara irakasle, J. Vinsonek, zer edo zer samurxeago, baina bi liburutan ere, euskarari buruzko iruzkinen artean. Rybary-ren liburuan dio (1877, XIV): *les pronoms relatifs sont inconnus*. W. Webster-enean (1877, 226): *relative pronouns are unknown*. Gerora Vinsonek Hovelacquek markatu bidean segituko du (1919, 61): (*Dans la grammaire l'influence néo-latine a amené...*) *A une époque très récente, on a employé les pronoms interrogatifs comme relatifs. / La syntaxe n'a pas échappé aux influences extérieures, ...*²⁶.

Ondoretik susmatzekoa da (eta aztertzekoa) Hiriart-Urrutiren eragina *zein...* erlatiboan gain beheran iparraldeko prosan, *Escualduna*-ren bidez eta garaiko euskaltzale guztietan (J. Etxepare, Barbier, Lhande, ...). Baita ere Urrutiren garaiko harremanak Azkue antizeinistarekin. Schuchardtek ere jatorri arrotza eta berantiarra egozten dio oro har *bait* aurrizkiaren erabilerari erlatiboetan *-(e)n* atzizkiaren aldean. Baina aldi berean aitortzen du erabilerara (1923, §85): *nor izan baita // nork egin baitu*. Gavelek ere onartzen du erabilerara (1929, 145):

(96) ... **haur bat, zein ... beita**

(97) ... **Joanes eta Bathiri, zein ... beitera**

(98) ... **ostatu bat, zeintan ... beitutuzte**

Nahiz, hauen jatorri euskal berezko edo arrotzaren inguru galde egin eta gero, aitortzen duen euskaraz arruntagoa dela *-(e)n...* aposizioen erabilerara (... *haur bat, joan dena // ... Joanes eta Bethiri, joan direnak ... // ... ostatu bat, ohoinak atzeman dituztena*).

Hortik aurrera, gaitzespena baino ez iparraldean ere. Hala Larrasquetek, esaterako (1939, 185; cf. OEH, *noiz* 3; *non* II,1): *Nuiz, lorsque, néologisme très désagréable, introduit par les jeunes prédicateurs, en mal de traduire en basque des sermons écrits en français. Même remarque pour nun, nunti, nur, dont ils font à tort des relatifs, alors qu'ils sont seulement interrogatifs*. Gauza bera egiten du *nun* sarreran, baina bitxiki, ez *zun* edo *zeren* sarreretan, nahiz hauei ere ez dien galdegilez gainerako erabilerarik aitortzen. Lafittek zorrotz gaitzetsiko ditu gramatikan: *Nous n'hésitons pas à condamner ce charabia* (1944/1979, 407), nahiz benetako erabileraren zenbait adibide jaso (ik. 1.10.). Lafonek ere Lafitteren hitzak errepikatuz gaitzetsiko ditu *zein...* erlatiboak, nahiz sutsu egingo duen *bait-* erlatiboan alde (1966, 221-3). Orainago antze-ko gaitzespena egiten die Wilbur-ek ere 1983an (ap. Oihartzabal, 1987, 302).

²⁶ Kanpionek ohartu bezala (1884, 171), Van Eys ere Vinsonek eta Hovelacqueren multzoan sar liteke *zein...* erlatiboan aurkako gurutzadan. Hala dio bere hiztegi sarreran (1873, xx). «Le pron. relatif "que" n'existe pas, il faut rendre la phrase par un participe».

Hegoaldean, Azkue da, zalantza gabe, 1891ko *Izkindea*-tik eta 1905-6 hiztegian barrena (ik. bereziki *N sufijo*-ren 5. sarrera –II, 61–) antizeinismoaren aldarrikatzaile nagusi, Azkueren aurpegi hau hain ezaguna ez izan arren (ik. *Azkueren borroka antizeinista etengabea 1891ko Izkindeatik* atala in Hidalgo, 1993). Eta hala ekiten dio (1891, §238) *ze, zer, zein, zeinetan, zeren, nola, non* aurrepartikulen “euskaratzeari” (*modismos extraños euskarizados* deitzen dituenak): *ZEINETAN dakartan* ⇨ *ETA ONETAN dakart*; *NON daukantan* ⇨ *ETA AN daukat* esaldiekin egin legez. Antzera gaitzesten ditu (1891, §672) *zerren, ze, zergaitik ze, zergaitik, ezen, eze, eta bezte onelango esakera batzuk ... son euskarizados; no debemos emplearlos* esanez. Eta antzeko joera antzeinista erakutsiko du aurrerantzean ere (1896ko *Metodo Practico*-an, bere aitaren Parnasoko Bidearen edizioan, Elizanbururen poesiari zuzenketa antzeinistak eginez (*Euskaltzale*), hiztegiko hainbat sarreratan (*-n, zein, zelan, zeren, zergaitik*); 1923-25eko *Morfologian* (§550) eta abar). Nolanahi, hiztegiko hainbat sarreratan, partikula hauen jatorri arrotzaz abisatu eta gero, kontraesanean, ontzat emango ditu hainbat erabilera (ik. *non, nonda, ze, zeinda*).

1906an, *Izkindea*-tik hamabost urtera, argitaratuko du Orkaiztegiak aurrerantz antzeinismoaren aitalehen sona emango dion liburu behin-betikoa, nahiz Azkueren akolitoa izan. 1901ean dio jada Mendibururen otoitz gaien akatsen inguru (47): *Los defectos serios, ..., ocurren principalmente en el empleo de los relativos (supuestos) zeñaren laguntzarekin, zeñari ...* 1906an berriz, gaztelania onean eta beste gaitzespen askoren ondoan (15-6): *Las oraciones llamadas de relativo son inadmisibles en baskuenze con zeñ, zeña, zeñak; nor, nork; nun, non, zeñtan, ...* Eta horretan segiko du urtetan (1908 *El relativo en el euskera*; ...). Eta berarekin guztiek.

Edo ia. *Ze*, Altubek, kurioski, *zein*... erlatiboan alde jokatu du beti (1929, 133-140)²⁷. Eta Villasantek ere poliki dihardu 1976an egitura hauen errehabilitazioaren inguru (87-92; 210-2), nahiz oraindik arrakasta gehiegirik bereganatu ez. Espero dezagun Euskaltzaindia 1999rekin egiturek berrituko direla bere lekua eskuratzen euskal prosan.

1.9. Galdegileak izenorde erlatibo bezala erabiltzea ez da soilik errekurtsio erromaniko bat

Hovelacque eta Vinsonen garaitik, bi topiko zabaldu dira gure artean *zein*... erlatiboan inguruan. Batetik, erlatibo “erromanikoak” edo deitu ohi zaie, hauen jatorri arrotza azpimarratu nahian. Ez bide lirerateke euskararen barnetik sortuak. Bestetik, eta aurrekoarekin estuki lotuta, esaldi mota hauek, soilik hizkuntza idatziarekin lotu nahi izan dira, hau da, hizkuntza “kutsatuarekin”, inoiz zerikusirik izan ez balute bezala ahozko hizkerarekin.

Baina Mitxelenak berak dio, nola galdegileak izenorde erlatibo gisa erabili ohi diren ez bakarrik hizkuntza erromanikoetan, baizik eta beste indoeuroparretan ere eta are hauetatik kanpokoetan (Villasante 1976ri eginiko *apostillan* (88)): *Las frases relativas de tipo latino (el griego, etc. tenían relativos distintos de los interrogativos: hós frente a tís, etc.), aparecen en lenguas romá-*

²⁷ Villasantek ere aitortzen du Altuberen *zeinismo* zaletasuna, Euskaltzaindiak honen *Erderismos*-i eginiko berrargitalpenaren sarreran (1975, VIII): «Pabeko desterruan bisitatu nuen nik Altube jauna 1952 urtean. Eta gogoan dut zer esan zidan: *Erderismos* berriz ere atera behar balu, zenbait gauzatan zabalagoa izango zela; batez ere anaforiko batzuk erabiltzea zilegitzat joko lukeela ...».

nicas, germánicas, esclavas, pero también en georgiano. Ez daukagu orain eskue-
ran beste hizkuntzaren daturik, baina pentsatzekoa da, hainbeste hizkuntzak
errekurtso bertsu bat garatu duen neurrian erlatiboazko esaldiak bideratzeko,
errekurtsoak ez ote duen zerikusirik giza-hizkuntz gaitasun unibertsalekin-
edo, eta beraz, errekurtsoak izan zezakeela bere sortze-bide propioa, edo haz-
tegi aproposa, gure hizkuntzan barrena ere (ik. hurrengo ataleko iruzkinak).
Ez da ziur jakiterik. Baina bai errekurtsoa oso ongi *egokitua* bizi izan dela eus-
kara baitan 350 urte luzez, bat-batean halako tresna eraginkorra leihotik bo-
ta nahi izateko birjintasun galduen kariaz.

1.10. Zein... erlatiboak ahoz euskaraz

1.3. atalean aipatu ditugu gure corpusean ahoz (edo ahozkoen ondotik)
bildutako *zein...* erlatiboak. Baina badira ahozko erabileraren testigantza
gehiago. Hala dio, esaterako, Lafittek, egitura gaitzetsi nahian (1944/1979,
407): ... *certaines Basques se servent des mots interrogatifs suivis de la forma cau-
sative en bait- por faire: a) des relatifs. b) des conjoctions.* Ez du aipatzen erre-
kurtsoa idatzizkoa denik, baina berak jasotako adibideek ez daukate zertan ez
izan ahozko:

(99) igorri zautaten **haur bat, zoinak hamar urthe baitzituen**

(100) **hiri bat** bazen, **zointan ez baitzen elizarik**

(101) eskualde batzuetan, **non arthoa bera jiten baita hemen kardoa bezala**

Mitxelenak ere aitortzen du (in Villasante 1976, 88), halako erlatiboen
ahozko erabilera: *Mlle. Jauréguiberry, en Bilbao, empleaba en exposición oral,
con toda naturalidad, frases relativas con zuiñ, que tengo anotadas.* Eta 1.3. ata-
lean jasoez gain, J. M. Agirrek ematen ditu Cerquanden XIX. mendeko kon-
takizun folklorikoetako beste hainbat adibide Nafarro-Behere eta Zuberoko:

(102) Erraiten du **emazte xaharrak, zoin bait zen sorgiña bat** (JMA, 1052; C, I, 44)

(103) ... justo justoa **hutxa haren gainean, non bait zen gordatua erran delako gizo-
na** (JMA, 1052; C, I, 49)

(104) Eta jun **hiri batetara nun fitez despendiatü beit zin bere diharia** (JMA 1052;
C, I, 64)

(105) - Orai ba niuak **zelialat, nun prestatüko beit deiat fotuil bat ene saihetsean**
(JMA, 1052; C, I, 66)

(106) Bazen errege **bat zuinek egin beit zütin phentsa abalak oro haren ükheitoko...**
(JMA, 1052; C, I, 67)

(107) ..., behar dun juan sehi holako **etxera non bait dire laminak** (JMA, 1052;
C, I, 79)

(108) Bazen ere kartielean **jaun aberats bat, zuina ezkuntü beit zen sei aldiz** (JMA,
1052; C, I, 85)

(109) - Orhoitzen hiz **egunaz zointan phikatu beit dautan esku hau?** (JMA, 1052;
C, I, 89)

Azkuek jasotzen du Atharratze, Zuberoko F. Hastoyren aho testigantza
(1935-47, II, 73):

(110) Baxabürietako mankhats-üniala sarturik ziren, **nun otso handi batek bürü egi-
ten beite, ...** (JMA, 1052)

I. Caminok ere Irulegiko irratian jasotako zuzeneko segidakoa testigatzen
du (1997, 479):

(111) Ezta **eliza anitz nun** ee uskaaz **iten beita**.

P. Klaberia lapurtarrak zioen segidakoa Euskadi Irratian eginiko elkarrizketan (2001-III-2; *Tarot, Frantziako karta jokoaren* inguruan, HABEko Dokumentu Biltegia, 1550):

(112) Ze(r)en da badira **elkarteak non tarotan hartzen den egunero**.

2001-I-25ean egiten diote Euskadi Irratian elkarrizketa M. Tanburin baxenafarrari argitaratu duen *Euskal deituren kronikak* liburuaz (HABE, Dokumentu Biltegia, 1260), nondik:

(113) ...Irulegi Irratian astean behin egiten nuen **kronika bat 5 minutakoa, nun azaltzen nituen, beraz, egiten ziren hutsak, ...**

(114) Zuek orain badituzute **lege batzuk, nun e deiturak aldatu ahal izan dituzuten**.

Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa-n (Leizaola) jasotzen dira 268. atalean segidako esaldiari eginiko erantzunak: *L'homme avec lequel j'ai parlé n'est pas grand comme ton fils - El hombre con quien he hablado no es tan grande como tu hijo*. 75 lekukok darabilte euskaraz ere erlatiboa erdarazkoari erantzun. Horieta 70ek, izen ardatzaren ezkerretik osatutako erlatibo kanonikoa eta bostek izen ardatzaren eskuinetikoa. Hauetako hiruk, *-(e)n...* erlatiboa, segidakoaren eran: *gizona neréki itzéin duéna* (Nafarroa Garaiko Usikoa). Beste biek, berriz, zubererazko Eskiula eta Santa Garaziko hitzunik, *zein...* erlatibo bidezko erantzun garbiak:

(115) **gizuna zuñeki mintzatü beniz** eztük hire semia bezañ handi (Eskiula)

(116) **gizuna zuñeki elhestatü beniz** ez düzü handi zure semia bezala (Santa Garazi)

Segidakoa, berriz, Toribio Alzaga antzerkigile donostiarrarena da (1888, 27):

(117) Egillearen ezkerretara **barrika bat nundik saltzen dan** sagardua, ...

Bere lehen antzerki lan freskoaren sarrerakoa da, eta ahozkoa ez bada ere, honen hurbilekoa, ez baitira *non, nondik* galdegile bidez osatutako erlatiboak batere arrotzak hegoaldeko hizkera arruntean (*zein...* galdegile bidezkoak bai bezala)²⁸. Horregatik gertatzen dira arruntak Amurizaren segidako idatzizko esaldiak hegoaldean ere (*Enaz banaz*, 1999):

(118) ... horma diferentea zeukan, bloke lerrotik lerrora **hirulau zentimetroko errentxo**a barrurantz zeukala, **nondik atzamar puntakaz heltzea bazegoen, ...** (45)

(119) **Bedian** adibidez, **non nik arreba bat bizi neban eta dodan**. (59)

(120) ..., **Autzaganeko jaiak** ziren, **non gure etxeko gonbidatu eguna ospatzen genduen**. (65)

(121) ..., **Autzaganera** jaitsi ginen, **non Bizkargitik bueltako erromeria ohi zen**. (127)

Ahazkotasunaren inguruko halako adibideen ondotik, zail dirudi *zein...* erlatibook, eta areago *non...* erlatiboak, ukatzea ahozko erabileretan. Segidako adibidea ere, gerok entzuna da:

(122) Horrela lortu dezakezu **beste norbait zeinekin euskeraz komunikatu** (=zeinekin komunika zaitezkeen)

²⁸ Eta halakoak arruntak dira garaian elizak (eta herriak buruz ikasita) darabiltzan errezoetan ere, nondik ere beharbada... Hala nola G. Arruek ematen duen segidakoan (1858, 29): Sinisten degu, ...; pistu zala irugarren egunean, ta igo zala *Ceruetara* bere AitEternoaren escutic jartzera, **nondic etorri baitzan lenago**.

Gaur egun arrunta da hizketaldi jantzieta, hitzaldietan eta, *non* erlatiboak entzutea hitzunen ahotan: ... *adibide bat non ...*; ... *esaldi bat non ...*; ... *leku bat non ...*

1.10.1. Erlatibo eta zehar galdera nahaste / bikoiztasunak euskaraz

Zein... erlatiboen ahozko erabileraren inguruan, euskaraz ere, munduko hizkuntza askotan bezalatsu, aipagarria da galdetzaile eta juntagailu erlatiboen arteko harreman estua, seguru asko zerikusia duena galdetzaileen genesi erlatiboarekin, zenbaitetan oso salto txikia baita zehar galdera eta erlatiboen artean. Esateko, euskaraz nahikoa maiz ematen dira halako bikoiztasunak pentsamenduzko(-edo) aditzen osagaietan, nola segidakoetan (E. Babaze 1998tik):

- (123) Orduan kontatu zigun berak **zer pentsatzen zuen** / berak **pentsatzen zuena**
 (124) Nominan jartzen du nik **irabazten dudana** / **zer irabazten dudana** / **zenbat irabazten dudana**
 (125) Erakutsiko dizut **zer egin didaten** / **egin didatena**
 (126) Argibide gehiago behar ditugu **zer esan nahi duzun** ulertzeko / **esan nahi duzuna** ulertzeko
 (127) Afal ondoan adierazi zigun **zer gertatu zitzaion** / **gertatu zitzaiona**
 (128) Ez duzu inoiz ikasiko **nola egin lan hori** / **lan hori egiteko modua**

Segidakoan J.R. Erauskinek zehar galdera darabil, baina erlatiboa erabili zezakeen (18):

- (129) ..., gogoratu zait **zer gertatu zitzaion nere osaba Txirritari bein batean**. (**gertatu zitzaiona**)

Zenbait saiatu da desberdintasun semantiko sistematikoak eraikitzen egitura sintaktiko desberdin horien ondotik (Babaze tarteko). Guri, hala ere, ez zaigu iruditzen horren kontu aratza, ezpada *jakin* moduko aditzen batean: *badakit zer egin duen* ez baita *badakit egin duena* (= *badakit egin duela*); edo *badakit horrek zer esan duen*, ez baita *badakit horrek esan duena* (*buruz edo*). Baina hori, *jakin* aditzaren ezaugarri semantikoei zor bide zaie. Guretzako berdinak dira, esaterako, Zubizarreta (eta beste)k zuzentzeko ematen duten 130 a (1998, 270), eta honen zuzenketatzat emaniko 130b (gauza bera 131 edo 132 bikoteen aurrean):

- (130) a. esango dizut **gertatu zaidana**
 b. esango dizut **zer gertatu zaidan**
 (131) kontatu dit **zer esan dizuten** / kontatu dit **esan dizutena**
 (132) irakurri nuen **zer idatzi zenuen** egunkarian / irakurri nuen **idatzi zenuena**
 Halako egituren nahastea oso arrunta gertatzen da, esaterako, *behar* aditzaren inguru gure gipuzkeraz behintzat (baita ere *nahi* aditzarekin, eta are besterekin ere -ik. 142 adib.-):
 (133) Intzazu lenbailen **ze in beazun!** / **in beazuna** (**zer egin behar duzun = egin behar duzuna**)
 (134) Eñ al dezu ja **ze in beartzendun?** / **in beartzenduna** (**zer egin behar zenuen = egin behar zenuena**)
 (135) Hartzazu segittun **ze artu beartzendun!** (= **hartu behar zenuena**)
 (136) Beidazazu lenbailen **ze beidatu nahi zendun!** (= **begiratu nahi zenuena**)
 (137) Beidatu al dezu **ze beidatu nahi zendun?** (= **begiratu nahi zenuena**)
 (138) Eamantzazu lenbailen **noa eaman beazun!** (= **eraman behar duzun lekura**)

- (139) Juntzaiz lenbailen **noa jun beazun!** (= joan behar duzun lekura)
 (140) Jun altzea **noa jun beartzendun?** (= joan behar zenuen lekura)
 (141) Etorri **zeinekin etorri behar duzun**, baina etorri garaiz! (= etorri behar duzunarekin)
 (142) Bukatu **zertan ari zeran!** (= (egiten) ari zarena)
 (143) Jon, ez zara ari **zertan aritu behartzendun!** (= aritu behar zenuenean)

Egiturok arruntak dirudite galdera edo aginduetan, are ezezkoetan. Ez hainbeste baiezko esaldi deklaratazaleetan. Hala moduko esaldi bat dakar I. Caminok ere Aezkoan jaso (480):

- (144) Gartaik, **zemat biautan** (Ab.)

Erlatibo zehar-galdera nahasteaz dihardu P. Goenagak ere (1986, 179-87), eta aurkezten ditu segidako Patxi Etxeberrriarena bezalako esaldiak (182):

- (145) Ez nuke nahi luzaro salgai egotia eta etorri bedi **zein dan tratantia** (hau da, *tratantia dena*)

Eta zerikusi horretaz dihardu B. Oihartzabalek ere (1985, 141-3), aurkeztuz eta aztertuz J.M. Barandiaranek Gipuzkoako Bidanian transkribatutako segidako ipuin bereko esaldiak:

- (146) a. ... zertan zaude or (...)? Ni? **Otsa** aditzen **noiz lertzen dan onera botatako aziya**
 b. Ta **otsa, noiz lertzen dan aziya**, aditzen al dezu?
 c. Eta **aziya noiz lertzen zan otsa** aditzen zun gizon arek ...

Esango genuke antzeko transformazioa jasaten duela *zer* galdegileak ere, haurraren galderan esaldi konpletibo oso bat ordezkatzan duenean, segidan bezala:

- (147) - Aita! Badakizu **zer?** / - Zer? / -Ba, lehengoan ...

1.10.2. Izen ardatzik gabeko erlatibo libreak galde izenordainen bidez

Galde ordainen erabilera ahozko hizkeran nahiko arrunta gertatzen da erlatibo libreak sortzeko garaian. Halako bi behintzat erabiltzen ditu ahoz Sarako hiztunak gure corpusean (Pagola 1984), galdetzailea erlatibozko esaldien hasieran emanda, aditzari *-(e)n* atzizkia erantsiaz, eta esaldi nagusian erakusle (edo adberbio) anaforiko baten bidez errekuperatuaz erlatiboa:

- (148) Baina, ale, denak ungi pasatzen die eta iluntxea dudelaik **zoinek dituen uso geienak eta arek** ostaturat yauntsita urrupat paatzen du lagunai eta ola denak kontent etortzen dire. (23)
 (149) **Non izaten dien lapinak eta hek** elkarretatzen die lapinek, lapinak, eta enseiitzen die kasatzea erbiak. (25)

N. Alzolak ere jasotzen du Irunen halako esaldi bat bertako ahozko euskaran:

- (150) **Zeinek ekartzen dizkidazuen abarrak lenago, txotxak, arendako** opilarik aundiena erreko dut ... (14)

Era honetako esaldiak jasotzen ditu I. Caminok ere Aezkoan (1979, 479):

- (151) **Non daon bat ongi**, pues eon bear du **gan** (Ab.)
 (152) **Non ein biartzuten afaria**, pues **ara** ematen'tziren (Gar.)

Sail berean ematen ditu Caminok hurrengoak, nahiz partikula anaforik gabeak:

- (153) **Ze in beaugun**, inen dugu (Ab.)
 (154) Aeteik **zein atratzen den**, pues atratzen dira (Hir.)

(155) **Non atratzen dan ura** (Hir.)

J.M. Egurrola bizkaitarrak ere badarabiltza egiturok Euskadi Irratian egini-ko elkarrizketan (*Euskara eta Literatura* 3/4, 1997, Ibaizabal):

(156) [(Galdera) Eta lo, nun egin behar du asto gaixoak?] Lo, ba, **nun geatzen gari-rien, e, hantxe.**

(157) [(Galdera) ..., zein da, ..., gomendagarriena edo ...?] Hori, *nobera gustora nun dauen, haxe onena.*

I. eta A. Frailek Oiartzungo hizkeran ere antzekoak darakuskite (132):

(158) **Zein santoi atetzia naizun, santu ari** eskatu

(159) *Euriyak nondik jotzen dun geina* (...) **an** atetzen da zea oi

(160) **Zembat diru zor tziyon, aimbeste** koxka in arrei

(161) *Zuk ze jaten tzun ua* ...

(162) **Nondik aldena andik**²⁹

Esaldi nagusia isilduta ere:

(163) Ilberriya obena perretxikutako. Bai, **nola eldu den, o nolako urtalia den** ...

(164) Girua re **nolakua zen** ...

Pasaiako hizkeran ere antzekoak jasotzen dituzte Agirretxe eta bestek (1998, 148)

(165) ..., ba *arrek se esateisun* ba **ura**, es?

(166) *Atuna nun daon*, puñeterua **an** eongoa.

Beti *-(e)n* menderagailua erantsita aditzari, eta esango genuke, artean galdegilearen tonikotasuna gordez (*zein...* edo *non...* erlatiboetan atonoa bihurtua litzatekeen bitartean?). Halako esaldiez dihardu Villasantek ere argi (1976, 85-6), segidako adibidearen inguruan:

(167) **Zer ikusten dudan, eta hura** esaten dut (85)

Eta Axularren antzeko adibideak jasoaz (gehiago ere bai 210-2n), egitura-ri propaganda merezia egingo dio, eta lotuko segidako euskal esaera modu ohikoekin (ik. ere EGLU-V, 2.5.1.):

(168) **Zer ikusi, hura** ikasi (85)

(169) **Non hasi, hantxe** bukatu (EGO, 679)

(170) **Nolako zura, halako** ezpala (EGO, 679)

(171) **Nork apurtu, harexek** konpon ditzala (EGO, 679)

Mokoroarenetik segidakoak, aditz jokatua duten biak, batere menderagailurik gabe emanak:

(172) **Non** ene xokho' **han** ene goxo... (6852)

(173) **Non** da besta' **an** da neska (15188)

(174) ... koipekeria bai ugari orrek mingañean' ... baña "**non** erromerie' **an** eperdie" (15235)

(175) Zuen sasoyakin? "**nun** det gogua, **an** det zankua" ...! (998)

EGLU-Vek korrelaziozko erlatibo deitzen ditu erlatibo libre guztiok (2.5.), eta *-(e)n* menderagailu bidezkoak soilik hegoaldeko eta ahozkotzat jo (baina jaso ditugu ere Sarako hiztunarenak eta Aezkoakoak), aitortuz *-(e)n* bidezkoak ez direla biziki agertzen testu idatzietan, nahiz gaur egun irakurri litezkeen segidakoaren antzekoak (I. Segurola, *EEg*, 1998-III-12, 4):

(176) ..., bati **zer komeni zaion, huraxe; zenbat komeni zaion, hainbestetxe.**

²⁹ Kasuan bitxia da *-(e)na* atzizki nominalizatua.

Bait- menderagailu bidezkoak, berriz, ezin usuzkoagoak dira iparraldeko literatura guztian Etxepare eta Leizarragarenetik, gehienetan *ere* lokailua lotuta izenordainari –ez beti–, eta esaldi nagusian izenordain korrelatu anaforikoa dutela gehienetan –ez beti–. Laffitek, *zein...* erlatibo arruntei ez bezala, erlatibo libreoi propaganda handia egiten die (1979, 97; 105; 408; 459; 461):

- (177) **nork ere salhatuko baitu, hari** ez zaio barkhatua izanen (105)
 (178) **non eta ere aurkituko baituzu, han** hil zazu (105)
 (179) othoitz egin dezagun, **nor ere penetan baita, eta harentzat** (105)
 (180) **nork ere erranen baitu ez duela zorionaz acholarik, hura** zorotzat emazu (408)
 (181) **nun ere ontsa baitira** (408)

Halako esaldiak, EGLU-Vek ere dioenaren haritik (2.5.3.), *zein...* erlatibo erlatibo libreak lirateke, *-(e)n...* erlatibo libreak, ezkerretiko erlatiboek diren hein berean: aurrekaririk gabeak, maiz esangura generikoarekin (*Nor ere baitago nigan, eta hark ... = Nigan dagoenak ...*), eta testuinguru egokietan balio kontzesiboa ere bereganatu ohi dutenak *ere* lokailuari esker. Erlatiboan ahozko erabilera arrunta, *bait-* menderagailuaren erabilera eremu osora heda liteke Goizuetako segidako adibideak bezalakoek erakutsiko liguketen eran (J. J. Zubirik pertsonalki aurkeztu eta baturatuak; ik. orain antzekoak in Zubiri 2000, 108-9):

- (182) Gizon ederra da **zein baita ere**
 (183) **Zein baita ere** ederki kantatzen du
 (184) Eta han funtzio edo soinu, edo **zer baitzen ere**, plazan zebiltzala (P. Perurenaren adibidea, bere aitaren hizkeran -EEg 1999-I-15, *Nafarkaria*, 6)
 (185) Kutxa hau polit askia da **zeinek (nork) egin baitu ere**
 (186) Hori ezagutzen dut **nongoa baita ere**
 (187) Ederki dantzatzten dute **nongoak baitira ere**
 (188) **Nora baitoa ere**, doala pakean
 (189) Ez dira txukun-txukun heldu, **nondik heldu baitira ere**
 (190) Egur pila ederra dago hor **zeinena (norena) baita ere**

Bestalde, halako *zein...* erlatibo librean ahozko erabileraren inguru, aipagarri da segidako adibidea, Ondarrun jaso, *noiz* galdegilearekin, eta aditzari *-(e)nean* atzizkia erantsita (nahaste hau nahiko arrunta bide da idatzian ere; ik. OEHn *noiz* 4, *noiz eta*, *noiz eta ere* sarrerak):

- (191) **Noix** onduen **geuasanian**, nikestaitx nun jjakieben, etorri ggiakusan marmua. (Salinas 1976, 82)³⁰

Añibarroren segidako esaldian batera ematen dira *noiz ... -(e)n* eta *noiz ... -(e)nean* egiturak:

- (192) Izangò dira **nos gichien uste dogun: nos mundutarrac guichien ichadongò daben: nos munduan becatu gueiago eguingo dan;** eta **nos munduac, onduteco, demporaric euquico eztabenean.** (1802, 39)

Era berean ohartzekoa da ahozko euskaran arrunta dela *noiz* galdegilea eta *eta* lokailua erabiltzea denbora sintagma bat azpimarratzeko: *Noiz(?) (l) eta (l) atzo etorri zen.* Esango balitz bezala: *Noiz etorri(?)... eta atzo etorri zen.* Gauza bera denborazko sintagma hori *-(e)nean* atzizkidun esaldia bada: *Eta azkenean egin zuen, noiz(?) (l) eta (l) egin behar es zuenean.* Halakoetan

³⁰ Ik. ere Erkiaga, Lekeitioko idazlearen idatzizko antzeko adibidea aurrerago (1.10.6.).

galdegilea tonikoa da eta etena erakutsi ohi du ondoko esaldiaren aurretik (*eta* lokailuaren aurretik edo atzetik). OEHk (*noiz eta*, d) antzeko adibideak jasotzen ditu denbora sintagmekin Erkiaga, Villasante eta Lafonenak (*noiz eta biaramon goizean; noiz eta gure mende onetan; noiz eta orduan*), edo Xurrioren bat *noiz eta ere* eta *-(e)nean* atzizkiarekin. Halako adibide bat darabil J. Permachek ere *Gara*-n (*Argia*, 2002-VI-30, 6an jaso):

(193) Badakite diskurtso horrek Batasuna amildegi bazterrean uzten duela, **noiz eta** ezker abertzaleko erakundeen aurkako eraso inoiz baino gogorragoa **denean**.

Esan behar, erabilera bera gertatzen dela galdegile guztiekin ere (ik. EGO 2000, 607-8): *NOR ETA Amaia; NOR ETA lehendakaria bera; NOR ETA berak; NORI ETA neurri; NON ETA Parisen; NON ETA zure ohe azpian; ZER ETA txerri bat*. Egiturok badute zerikusia hurrengo atalekoekin.

1.10.3. Galdera sistema izen ardatzen identifikatzeko gure ahozko euskarari

Izan ere, gure inguruko ahozko ohiko euskarari bederen, oso arrunta da galderen edo galdera ordezkoen erabilera, erlatiboen ordezkari, hainbat izen ardatz identifikatzeko (hau da, erlatiboen eginkizun berarekin), artean galdegi-leak bere tonikotasuna gordeaz, nahiz galdera intonazioa aldatua gertatu. Hala moduzkoak izan litezke segidakoen antzeko adibideak (puntuak (...)) nolabaiteko etena adierazi nahi lukete galdera edo galdera ordezkari eta esaldi nagusiaren artean):

(194) **Non aurkitu zenituen atzo liburuak**, ... (?), bada, **hantxe** ikusi ditut neronek gaur beste batzuk.

(195) **Nola etorri den Mikel goizean**, ... (?), bada, **horrela** joan beharko duzu zuk ere.

(196) **Noiz ikusi genuen, bada, zure alaba**, ... (?) Bada, **orduantxe** azaldu zen nire senarra ere.

(197) **Norekin ibili zinen, bada, joan den astebukaeran**, ... (?) **Mutil hura** topatu dut gaur goizean.

(198) **Nora eraman zenuen irratia konpontzera**, ... (?), bada, **tailer hartako** nagusia hil da gaur goizean.

(199) Zuei **noiz datorkizuen ondo, noiz hasi nahi duzuen**, ..., etorriko gara gu lanera.

Galdera sistema erabili ohi da izen ardatz mugatu baten ondoretik ere, hau identifikatzeko *-(e)n...* erlatiboak erabili ohi diren modu berean):

(200) **Hotela, nun eon gea(n) ba bazkaitan**, oso garestia iruditu zait

Hala moduzkoa litzateke J. J. Furundarenak Astigarragako hizkerari jasotako segidako ere, anakoluto eta guzti (1998, 130):

(201) Konpaziyo batea, zuk **aginako mina** baakazu(,) jarri karakola **nun dezkazu(,)** eta sumatuko zu nola tiratzen ai zaizun. (= *jarri karakola non daukazun hagineko mina*)

EGLU-Vek gogoratu bezala, Altubek galdera joku bertsua erakusten du, honen lotura erakutsi nahian garaian horren sutsu gaitzetsi nahi ziren *zein...* erlatiboekin (1929, 138-9):

(202) ¿**Zein gizonen alaba ezagutzen dedan?** ba **gizon uraxe**.

(203) ¿**Zein ugazabarentzat lan egiten dedan?** ba **ugezaba orixe**.

(204) ¿**Zein laguneri limosna eman oi-diodan?** **lagun ura**.

(205) ¿**Zein etxetatik irten zeran?** **etxe ura**.

(206) *¿Zein urtetatik emen bizi naizen? urte ura.*

(207) Berak **zer esaten eban?** nik **arexeri** erantzun baiño ez.

P. Goenagak ere antzeko hausnarketa egiten du segidako esaldiaren inguru (1986, 182):

(208) Badakizu **zer urtetan hil zen aitona**, ez da? Ba, **ordutik** hona ez dut Joxeren berririk batere izan.

Halakoetan, *-(e)n* atzizkia arrunta bada ere aditzari erantsita, mendekotasun seinale edo, ez da harritzekoa euskaldunen ahotan antzeko galdera zuzenak aurkitzea batere atzizki gabeak ere orain aldiko aditzetan, artean mendekotasun ezaren seinale. Eta goiko (195) *Nola etorri den Mikel goizean, ..., bada, horrela joan beharko duzu zuk ere*, esaldiaren pare aurki genezake atzizki gabea, artean seguru asko galdearen antzeragoko intonazioz:

(209) *Nola etorri da Mikel goizean(?) ... Bada, horrela joan beharko duzu zuk ere.*

Altubek garbi azpimarratzen du esaldi hauen eta *zein...* bidezko erlatiboen arteko zerikusia (1929, 139): *Puede asegurarse, pues, que la utilización de la oración interrogativa como auxiliar de las ordinarias (tal fué el origen de las locuciones anafóricas cuyo, el cual, por el cual, etc., de que tanto partido sacan los idiomas indoeuropeos) no es un recurso del todo extraño al euskera popular;...*³¹.

1.10.3.1. Nola galdegile bidezko galdera sistema

Izen ardatzak identifikatzeko erabili galdera sistema honen inguru, aipatu behar da, hegoaldeko ahazko euskaran bederen, batez ere *nola / zelan* galdegilearen erabilera, entzulearen adimenean egoera baten irudikatze edo gogorarazteko, nondik erakarriko nahiko duen gero hiztunak diskurtsoa jarraitzeko elementua, maiz korrespondentzia gabea galdegile berarekin. Hala moduzko adibideak izan litezke segidakoen antzekoak (galdegile tonikoz, eta artean galderaren antzeko intonazioz, nahiz *-(e)n* atzizkidun formak konbinatu gabeekin):

(210) *Nola ikusi dugu goizean mutil handi bat (?) ... Ba, mutil hark* esan digu.

(211) *Nola ikusi dugun goizean mutil handi bat, ..., ba, orduan bertan* bururatu zitzaidan kontua.

(212) *Nola ikusi dugu goizean mutil handi bat (?) ... Ba, denda hartan* izan gara gaur ere.

(213) *Nola ikusi genuen goizean mutil handi bat, ..., ba, egun hartan* gertatu zen dena.

(214) *Nola ikusi dugu goizean mutil handi bat (?) ... Ba, horregatixe* dakit zer gertatu zen.

Halakoak erakusten dituzte, esterako, Agirretxe eta bestek Pasaiaiko hizkeran (1998, 148):

(215) Elisen aurreko itxe ederrori **nola do?**

(216) Semaforua **nola seon**, (...), **nola do** itxe sar bat?

(217) ..., **nola daon** ... Or jayo nitzan

(218) **Balentin**, **nola suen** serian kioskua ...?

Antzekoak, Astigarragako hizkerako hurrengoak (J. J. Furundarena, 1998)³²:

(219) Jubilatu etxioi **nola**, **oi** mojakin zen, ... (54)

³¹ Ik. oro har 133-40 bitarteko orrialde ohargarriak. Baita ere 1946, 191-3 bitartekoak.

³² Ik. ere aurrerago Leitzako 284 adibidea.

- (220) **Zaagiya, nola ardua ibiltzea, or** ekartze zan. (57)
 (221) **Oi** trumoya zanian zeatu, **nola izte baitan beinkatua, oi** subai eman, ta ... (177)

Nolanahi, galdera sistema hau, I. eta E. Zubirik gogoratu bezala, ez da bakarrik erabiltzen zati galderekin, galdegiledunekin. Baita ere bai/ez galdera orokorrekin. Haien adibide batzuk:

- (222) Ikusten duzu **neska hori**? Ba, **horixe** da Begoren ahizpa.
 (223) Gogoratzen duzu **atzoko mutila**? Ba **berak** esan dit.
 (224) Ikusten duzu **horko auto hori**? Ba, **horrelako** bat nahi dut.
 (225) Entzun duzu **zer esan dion Joni**? Ba, **gauza bera** esan zidan niri.
 (226) Ikusten duzu hau **nola** dagoen? Ba, **honela** egin behar duzu.

Galderen errekurtsua oso erabilia da ahozko hizkeran (ez bakarrik euskaraz) izen ardatzak identifikatzeko, eta nahitaezkoa da errekurtsootan trebatzea aho hizkuntza ikasi nahi duen oro.

1.10.4. Galde izenordaina + aditz partizipioa (aditzoina) egitura erlatiboa

Arrunta da *galdegile + aditz partizipio (aditzoina iparraldean)* egitura pentsamenduzko zenbait aditzen inguru (*ez dakigu zer egin; erabaki dugu nora joan*). Antzeko egiturak erabiltzen dira, ordea, pentsamenduzkoak ez diren beste zenbait aditzekin ere (*izan, egon, ukan, eduki, eman, aurkitu, lortu* behintzat) eta orduan erlatibo (berezi) batzuen aurrean gaudeke³³:

- (227) Ez daukate **nora joan (nora joana / joanik)**
 (228) Badago hemen **non begiratu (non begiraturia / begiraturik)**
 (229) Ematen du horrek **zer esan (zer esana / esanik)**
 (230) Izan nuen, bai, orduan, **zer pentsatu (zer pentsaturia / pentsaturik)**
 (231) Bazen han **nondik lapurtu (nondik lapurtua / lapurturik)**
 (232) **Non egiñik** ez zuenak' ezkaratza laiatzen asi omen zen (Mokoroa 10984)
 (232) Aurkitu dute **non egin (non egina / eginik)**
 (233) Horrek bilatuko din bai ondo **zeinekin borrokatu (zeinekin borrokatua / borrokaturik)**
 (234) Azkenean lortu nuen **norekin bidali abisua beste aldera (...)**

J. Arretxek ere erakusten ditu halako batzuk politikak Basaurin jasoak (1994, 210):

- (235) ..., estao **nok eiñik**
 (236) Bier asko da **nok ein** gitxi
 (237) ... **nok alboti erakutzi** dekosuen arte ...

Halakoa da Cid-en segidakoa ere (1987, 619), arrazoi gabe txartzat emana gure ustean:

- (238) Ez duzu **noren etxera joan**³⁴

EGLU-Vek gaur egungo joeratzat ditu halakoak (259), baina Axularrena da segidakoa, agerian erakusten duena egiturak eta izenen arteko zerikusizuzena:

³³ ..., berez aditz jokatzeko zehargalderak onartzen ez dituzten aditzen mende, dio halako esaldiez P. Goenagak (1997, 166), *Erlatibo bereziak* izenburu pean. Ik. ere EGLU-Vek dioena halakoen inguru (2.6.2.).

³⁴ Cidek txartzat ematen ditu segidako adibideak ere. Bat egiatan bitxiagoa, nahiz ezin txartzat emanikoa hala ere: *Ez daukagu nortzat hartu mutil hori*. (619) Bestea arruntagoa: *Aurkitu genuen zein gizonekin hitzegi* (617).

(239) Eztute edireiten, **non oiña fintka**: eztute edireiten, **zeri lot**: eztute edireiten **girthaiñik, esku-tokirik, sostengurik**, eta ez **konsolatzeko biderik**, eta ez **esperantzarik**. (Ax §384)

Gure ustea da halako egiturek gehienetan onartzen dutela (baina ik. 234 adibidea) partizipioa deklinaturik modu absolutiboan edo partitiboan, baita baiezkotetan ere, nahiz EGLU-Vek soilik partitiboa aipatzen duen eta soilik ezezko esaldietarako. Goenagak dioen bezala (1997, 166), ez dirudi halako esamoldeak nominalizaziotik urrutik daudenik (*zeresana, zeregina, ...*), bederen arruntki erabilienak. Baina ez eta ere, izen ardatz baten ondoretik emaniko erlatiboetatik:

(240) Ez daukate **nora joan** = Ez daukate **leku bat nora joan**

(241) Aurkitu dut **non egin** = Aurkitu dut **leku bat non egin**

(242) Azkenean lortu nuen **norekin bidali abisua beste aldera** = lortu nuen **pertsona bat norekin bidali abisua**

(243) Horrek bilatuko din bai ondo **zeinekin borrokatu** = bilatuko din bai ondo **lagun bat zeinekin borrokatu**

Eta aurkituko ditugu halako esaldiak emanak izen ardatz determinatu baten ondoren ere:

(244) Eman dit **telefono bat nora deitu**

1.10.5. Aurkezpen egiturak: *hara ... / hor ... + non (nola) + ...-(e)n*

Galdegile eta erlatiboen arteko zerikusi honetan era berean dira aipagarri aurkezpen egiturok, maiz esklamazio modura erabiliak, *hara, horra, ...* edo *hor, ...* adberbioen bidez emanak, *non* galdegilearen aurretik arruntki (baina baita: *nondik, nola, zer, ...*), segidakoan antzekoak (ik. ere OEH *hara, horra, hor* eta hango erreferentziak):

(245) **Hara non datorren** zure laguna (=?) **Hara bidea/lekua non datorren** zure laguna)

(246) **Han non dagoen** zure laguna (=?) **Han etxea/ingurua non dagoen** zure laguna)

(247) **Hortik nondik datorren** zure laguna

(248) **Hor non datorren**

(249) **Hor nola agurtzen zaituzten**

(250) **Hara nondik datorren** zure laguna

(251) **Hara zer ekarri zidan** zure lagunak (= Hara ekarri zidana ...)

(252) **Horra non daukazun** zure semea (=?) **Horra lekua non daukazun ...**)

(253) **Horra zertako diren** askoren kontuak (=?) **Horra helburua zertako diren ...**)

(254) ... **or nun azaltzen dan** itxaspetik ontzi ortakoa. ... (Ziarsolo, 28)

Segidakoak Mokoroarenetik:

(255) **Ara non daukazuten** azaldurik gure Ama Gipuzkoa-ren bizitza' ... (7347)

(256) Indarrak pixkaka etorri zitzaizkion' eta **orra non jarri zan** zingiratik kanpora irteteko gai. (7364)

(257) Nik erranen dautzut: **huna non naizen...** zer nahi zinuen?... (11386)

(258) **Ona non dezun** gaia' munduan dan kontuzena izatez ta egokiz erabili behar dana. (13393)

(259) Zaude pixka bat! **Orra non datozen** iru azeritxakur' ... (15081)

(260) Aufa!... **Huna nun naizen** berriz, egundaino bezen azkar, ... (1103)

Guztietan ordezkia liteke hasierako erakuslea *begira* aditzarekin (*Begira non egon garen!*). Eta halakoetan ere, ez dirudi jatorrian distantzia handirik

dagoenik zehar galdera eta erlatiboen artean (*Begira gaztelua! Begira egon garen gaztelua!* edo are *Begira gaztelua, non egon garen!*).

Antzeko egiturak arruntak dira aurretiko erakuslerik gabe emanak ere, nola segidakoak:

- (261) Gorutz beatu'ben ia nundik etorren ori sokioi ikusteko. **Nun ikusten daben** Leokadi elixako teillatu gañin arri biurtute kortxeleko mamun bitxartiñ. (Gorostiza, 102)
- (262) Jakiñ al dezu apaiz orren eriotz batetakoa?... Erenegun ondoez bat izan zuan; eta atzo goizean **non billatu duten** itzik-gabe, burura-jota. (Mokoroa 2423)

1.10.6. Izen ardatzik gabeko erlatiboetatik izen ardatzdunetara

Azken atalotan ikusi legez, arrunta da euskaraz galdetzaileen erabilera izen ardatzik gabeko erlatiboak osatzeko, ahoz zein idatziz modu desberdinetan. Eta erabilera arrunta izaki euskal hiztunengan, ez dauka hiztun honek muga zertan ez gainditu, eta galdegileak modu bertsuan erabili erlatibo izen ardatzdunak osatzeko, 1.10. ataleko adibideetan ikusi dugun legean, edota oso erraz segidako egiturak bezalakoetan, non erlazio semantiko estua ematen den izen ardatza eta erlatiboazko esaldi buruko izenordainaren artean (ik. ere berriro (122) adib.)³⁵:

- (263) Jonek beti aurkituko du **leku bat non zikindu** *gu konturatu gabe* (*edo leku bat non zikindu litekeen*)
- (264) Neronek erakutsi nion **bide bat nondik etorri** *denbora aurreratzeko* (*edo bide bat nondik etorri zitekeen*)
- (265) Hori ez da **arrazoi bat zergatik egin behar duzun** *beti nahi duzuna*.
- (266) Eta horixe da **puntua nora eramaten gaituzten** *zure erreflexio petral horiek guztiek*.
- (267) Ez al daukazu **soka bat, zerekin lotu fardel hau?** (*edo zerekin lotu dezakezuen*)
- (268) Erakutsi zizueten zuei **modu bat nola konpondu** (*zenitzaketan*) *zuen arazoak*.
- (269) Hortxe daukagu denok begi aurrean **helburu bat zeinengatik/zeinen alde borrokatu** *datozen egonotan*.
- (270) Horixe duk **modua nola egiten dituen** *gauzak jendilaje horrek*.

Ziur izen ardatza eta galdegilearen arteko erlazio estuak (*leku bat - non; bide bat - nondik; arrazoi bat - zergatik; modu bat - nola; helburu bat - zeinengatik*), edota testuinguruaren arabera baina errealak (*soka bat - zerekin; puntua - nora*), asko errazten duela halako esaldien ahozko erabilera eta arazorik gabeko ulergarritasuna euskal hiztun arruntan artean (gogoratu ere goiko 244 adibidea: *Eman dit telefono bat nora deitu*). Baina ez dirudi, ordea, jauzi handiegirik dagoenik hortik *zeinismo* osoago batera³⁶. Begiratu ere segidako adibideari (andereñoa haurrari laguntzen fitxa bat betetzen):

- (271) Hor jarri behar duzu **herria zu non bizi zaren orain**

Halakoak dira ere gure tradizioan arruntak diren *etorriko da eguna - noiz* itxurakoak. OEHtik (*noiz* 4) segidakoak: ... *jaio zenean, noiz ... baitzen...* (Berriain); *hilabetetan, noiz baitira ...* (Belapeyre); *milla seireun ogeita*

³⁵ Esaldion guztion ahozko intonazioan galdetzaileak artean jasoko luke intentsitate berezia, galdera zuzen edo zeharkakoetan bezainbestekoa izango ez bada ere. Baina galdetzaileak ez dira artean *atonoak*-edo izango.

³⁶ Nola gorago aipatu ditugun *Begira non egon garen!* eta *Begira gaztelua, non egon garen!* esaldien arteko isuria.

emeretzikua, noiz itxi eban ... (Arrese Beitia); ... asi baizen laster, noiz nasaien eta alaiien egoanean, ... (Erkiaga). Edo (OEH, noiz eta c): Etorriko da eguna noiz eta Jaungoikoari ordu bete eskatuko diodan (Arrue); ... eguna iritxi zan, noiz eta kongregazioak ... (Arrue).

1.10.1-6 ataletan erakutsitako kasuistika guztia ere, noski, ez da konkludentea *zein...* erlatiboan erabilera guztiak betikotzat eta ohikotzat emateko euskara guztietan, eta ez eta ere gomendatzeko ahozko erabilera arrunt guztietarako. Baina denak batera badira seguru asko nahiko froga *zein...* erlatiboak ezin arrotzat eman ahal izateko euskaraz, edota begiak itxi eta beren mesedeak ezin ahaztu eta arbuia nahi izateko.

2. BAIT- ERLATIBOAK

-(e)n... eta *zein...* erlatiboak eman ohi dira euskararen eremu osoan izen ardatz determinatuari aposatuak. Eta gauza bera egiten dute *bait-* erlatiboek ere (hala deitzen ditu EGLU-Vek, 240-7), nahiz eremu mugatuago batean (gaur egun bederen). Guk estatistikoki aztertu corpus nagusietan³⁷ ez dugu halakorik aurkitu, eta ez dugu ohar txikiren bat baino egingo, jada Lafittek bere gramatika argi jasotzen dituen erlatiboan gainean (1944/1979, §772; nondik)³⁸:

(272) **gizon bat** ikusi dut, **ez baitzuen** *ilhe ondorik ere*, j'ai vu un homme qui n'avait pas un seul cheveu

Erlatibo hauek jada gure lehen autore nafar eta iparraldekoetan ageri dira (ik. OEH *bait* 3, non jasotzen diren ere Lafitteren eta Lafonen hitzak erlatiboan inguruan). EGLU-Vek (1999, 241) erlatiboan erabilera baieztatzen du bereziki XX. mendeko Iparraldeko idazleen artean, eta gaur eguneko ahozko euskararen. Hala erabiltzen baitira ekialde osoan (ez iparraldean bakarrik), nola erakusten duten ongi I. Caminok (1997, 477) ahozko aezkeraz biltzen dituen adibideok:

(273) Bai izan dira bai **epokak ona** (sic), **galdu beitira** yendeak gor, ona, mendian (Aria)

(274) Badira **urteak** denborak **ezpeitu ematen** (Hir.)

(275) Nik batut **irir edo laur alaba** gan **eon beitira** (Hir.)

Edota J. Estornesek (1985) testigatzen dituenak Zaraitzuko Zoilo Mosoren hizkeran:

(276) (Badra bi klase, tzintzarri andiak lepoan ermaten tienak daude osatrik ta) badra **berze batzuk** osatu bage **baitra** akertzantzak, auntsen azkatzeko. (35)

(277) Otsagi'n badago **iturri bat diaitzen baita** botikarioaren iturria. (55)

Baita P. Salaberrik testigatutakoak Luzaiden (278) eta Mezikirizen (279) (2000, 251):

(278) **zakúr bérnja, jáz erósi baiginín**, errékat eróridá

³⁷ 1994ko corpora eta Medikantzakoa.

³⁸ Eta zeini ikaragarritzko propaganda egiten dien esaterako Lafonek ere (1966, 223).

(279) gúk déitzendwé (sic) **ninéria**, báí **ninéria ibíltzenbaité kwadrilleka** (ez oso adibide argia esan)

Halakoak testigatzen ditu P. Salaburuk ere Baztango hizkeran (1984, 321)

(280) ni sortua naiz **Artxean**, *orain Enrike bizi baita*, hor sortua naiz ni

(281) joan ginen **Ximitoneko bordara**. *Hor, eta Iketzateko Bentatik goitixoago, kasko hortan baita*. Hortara joan ginen.

Olanok bereziki aipatzen du *bait-* erlatiboen erabilera Areso eta Leitzan (Gipuzkoa ondoko Nafarroan), segidako adibideak emanez (1998, 262; 282-4 Leitzako; 285-6 Aresoko):

(282) **Tito Gaztelunan andrea**, *aisoarra baita!*?, orren aman ama zen.

(283) Oik tê sarobek, yakiñe! Korral oin ondoan **txaol ttikik e an baitaude?**, ... anxe tie sarobeak.

(284) Etxeberriko ondoan etxe zarrak? Bai! Sasa ta Mitxelaundi zien, ondo-ondoan. **Medikun etxea** nola dao, mediku izanduna?, *oain etxe berrie in baitue*, or tzien.

(285) ... **osaba**; *pilloari or aitzen baita*, (...) aren osaba, Miel Joakin ...

(286) Albisue joan die argitzea, **Albisu or errie baita**, ta ...

Oiartzungo hizkeran ere (Gipuzkoan) I. eta A. Frailek aitortzen dute *bait-* erlatiboen erabilera, nahiz erakutsitako adibideak ez diren erabat garbiak testuinguru zabalagoen faltan (1996, 131):

(287) *beeko plazam bizi baitia*, arrek in ta sendatuak bai men dia

(288) oan e ala izango ala uste ut, zean itten dula lana, (...) urrongo portaletik sartuta or goyan, *Bixi andria baidu*

(289) **Mariano**, *bertsuk itten ai baida*

(290) (...) **Pasma belarra**. Orrek txukuntzen ttu baztar guztiyak. *Ean ta denantzako baliyo baitu*

(291) *Goizutako fiesta batzutan detenitu ta im bai zittuzten*

J. J. Zubirik (1998) jasotzen du *bait-* aurrizkiaren erabilera Goizueta eta Aranoko hizkeretan, baina ez *bait-* erlatiboena (nahiz ezaguntzat ematen duen erabilera bertakoentzat ere, pertsonalki esana). Eta goi-nafarrerazko azken adibideon haritik, pentsatzekoa da ez ote den *bait-* erlatiboen erabilera zabaltzen (eta zabaldu) *bait-* partikularen erabilera eremu osora³⁹.

Bereziki neurtu beharko litzateke *bait-* egituron pisua beste erlatibo moten artean, hauek ere ezkerretik abiatutako erlatibo kanonikoen alternatiba baitira, eta konkurrentzia zuzena dute *-(e)n...* eta *zein...* erlatibo aposatuekin. *Bait-* erlatiboak erabiltzen diren kasu guztietan erabili bailitezke, eta ohi dira, beste erlatibo aposatuak (hala dio EGLU-Vek ere *-(e)n...* aposizioen kasurako bederen -215 or.-):

(292) a. **gizon bat** ikusi dut, **ez baitzuen ilhe ondorik ere**

b. **gizon bat** ikusi dut, **ez zuena ilhe ondorik ere**

c. **gizon bat** ikusi dut, **zeinak ez zuen/baitzuen ilhe ondorik ere**

³⁹ Ahozko testigantza horiei guztiei, toponimiako testigantzak erantsi dakizkieke (cf. Salaberri 1996ko Nafarroa ekialde eta ez hain ekialdeko *bait-* toponimoak (225-8): *Espelea bayta*, *Udarea bayta-coa*, *C(Ç)ugarra payta*, *Erleabaitaco*, *Elorryabayta*, *Arizabaitacoa*, ...), erabat zalantzan jartzeko erlatiboon jatorri arrotzari buruzko hipotesiak (Txillardegí, 1978 134, esaterako). Nolanahi, badirudi *bait-* partikula erlatiboaren erabilera denborarekin zabaltzenago joan dela Nafarroako mendebalerantz, non ahoz erabilia den (edo zen) arren, artean toponimian *-(e)n* erlatibo arrunta edo *-(e)n...* aposatua ageri baita, *bait-* gabe (*Andrea galdu zan erreka*, *Gizona hil zaneko pagoa*, *Gorostididena*, *Elorriandia dana*, *Usoacedatenduena*, ...).

Are erlatiboaren aurrekaria perpaus osoa denean ere (ik. Euskaltzaindia 1999, 246-7):

(293) a. Garatik hirirako bi zubiak ere behar dituzte zabaldu, **ez baita goizegi izan-en**.

b. Garatik hirirako bi zubiak ere behar dituzte zabaldu, **ez dena goizegi izan-en**.

c. Garatik hirirako bi zubiak ere behar dituzte zabaldu, **zein(a) ez den/baita goizegi izan-en**.

Eta *bait-* erlatiboen kasuan ere ezin liteke predikatu hauek soilik erlatibo ez-murriztaileak osatzeko erabiltzen direnik *-(e)n...* aposizioen kasuan ere ez bezala, eta finean ezta ere *zein...* erlatiboenean, ikusi dugun legean). Hala ikus liteke, esaterako, segidako adibide begi bistara murriztaileetan -erakusleekin emanak- (I. eta E. Zubiri 2000, 721; non, egituron eskertzeko propaganda eginda ere, dirudien, balio ez-murriztailea eskaini nahi ote zaien soilik):

(294) **Etxe zahar hori, eliza ondoan baitago**, apaizarena da.

(295) **Neska hori, Begoren etxean ezagutu bainuen**, Jonen arreba da.

BIBLIOGRAFIA AIPATUA

- AGIRRE, J. B. (1808), *Eracusaldia*, Tolosa, 1850, 3 tomo; Donostia, Hordago, 1978.
- AGIRRE, J. M. (1991), *Euskal gramatika deskriptiboa*, (2 liburur), Labayru, Bilbo, 1991.
- AGIRRETXE, J. L. (eta beste) (1998), *Pasaia* hizkera, Pasaia Udala, 1998.
- ALBERDI, J.; J. GARCIA (1996) «“Zein (...) bait-/n” egitura». In ZABALA, I. (koord.), 1996, *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoa*, EHU, 1996, 131-167.
- , (1997), «Zein izenordain erlatiboaren deklinabidea», *Euskera*, 1997, 349-57.
- , (1998), «“Zein (...) bait- / -n” erlatiboa: Literatura-Tradizioa», *FLV*, 78, 1998, 235-265.
- ALTUBE, S. (1929), *Erderismos*, Euskera, 1929; Euskaltzaindia, 1975 (A. Villasanteren hitzaurrea).
- , (1946), «La unificación del euskera literario», *Eusko-Jakintza*, III, 1949, 181-204.
- ALZAGA, T. (1888), *¡Aterako gero!*, EEE, Klasikoak, 30, 1990, 21-54.
- ALZOLA, N. (1991), *Euskaraz, Irunen barrena*, Luma liburuak, Kristau Eskoletako Anaiak, 1994.
- AMURIZA, X. (1999), *Enaz banaz*, 1999, Bertsolari.
- AÑIBARRO, P. A. (1802), *Escu-librua*, Tolosa, 1802; Hordago, 1978. (2. arg. zuzendua, *Escu-liburua*, Tolosa, 1821; 3. arg., *Esculiburua*, Tolosa, 1827).
- , (1923-33), *Axular: Guero guero ... Bizcayco eusquerara ...*, *RIEV*, 1923, 1925, 1926, 1928, 1929, 1931, 1933.
- , (2001), *Guero guero*, Euskaltzaindia, 2001 (B. Urgellen edizio kritikoa).
- ARANBURU, M.; M. BAGO AGIRRE (1899), *Erriko Jendeentzat Osasun Legeak eta Medikantzako Argibideak*, EEE, 1994.
- , (1899), *Manual de Higiene y Medicina popular*, Vergara, 1899.
- ARRETXE, J. (1994), *Basauriko euskara*, Basauriko Udala, 1994.
- ARRUE, G. (1858), *Cristauaren doctrinaren jaquinbide azaldua, edo Asteteren explicacioac Santiago Mazo jaunaren liburutic*, Donostia, 1858.
- AXULAR, P. (1643), *Guero. Bi partetan partitua eta berecia*, Bordele, 1643. Edizio faksimila, Euskaltzaindia, 1988 (*Gero*, Jakin, Aranzazu, 1976, L. Villasanteren argitalpena, nondik aipua).
- AZKUE, E. M. (1896), *Parnasorako bidea*, Bilbo, 1896; Hordago, 1979 (R. M. Azkuren sarrera eta prestaera).
- AZKUE, R. M. (1891), *Euskal-Izkindea. Gramática Eúskara*, Bilbao, 1891.
- , (1896), *Método Práctico para aprender el euskera bizkaitano y gipuzkoano*, Bilbao, 1896.
- , (1905-6), *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Bilbao, 1905-6 (2 vol.); LGEV, Bilbao, 1969.
- , (1925), *Morfología Vasca*, La Gran Enciclopedia Vasca, 1969, 3 tomo.

- , (1935-47), *Euskalerrriaren Yakintza*, Madrid, Espasa-Calpe, 1935-1947 (4 tomo); Madrid, 1989.
- BABAZE, E. (19??), *Edukiak Lantzen*, HABE-Gasteiz (Argitaragabea).
- BIGURI, K. (1994), «Erdarazko erlatiboen itzulpenaz», *Senez*, 15, 1994, 37-72.
- CAMINO, I. (1997), *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Hezkuntza eta Kultura Departamentua, 1997.
- CERQUAND, J. F. (1874-1885), «Légendes et récits populaires du Pays Basque», *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau*, 1874-5, 1875-6, 1876-7, 1884-5. Orain euskaraz soilik, *Ipar Euskal herriko legenda eta ipuinak*, Txertoa, Donostia, 1985-6, 2 tomo (A. Aranaren edizioa eta hitzaurrea), nondik aipuak.
- CID, K. (1987), «Euskal Erlatibo Motak», *ASJU*, XXI-2, 1987, 599-627.
- DUVOISIN, J. P. (1858), *Laborantzako liburua*, EEE, Donostia, 1986.
- ERAUSKIN, J., R. (1975), *Aien garaia*, Auspoa, 1975.
- ESTORNES, J. (1985), «Zoiloren Uzta. Zaraitzu'ko uskara», *FLV*, 45-46, 1985, 31-93.
- ETXEBERRI, J. d' (1712), *Escuarazco hatsapenac latin ikhasteco*, in: *Obras vascongadas del doctor labortano ...*, Paris, 1907.
- ETXEPARE, B. (1545), *Linguae Vasconum Primitiae*, Bilbo, 1980.
- ETXEPARE, J. (1910), *Buruxkak*, Elkar, 1980; EEE, 1992 (nondik aipuak).
- EUSKALTZAINDIA (1999), *Euskal Gramatika Lehen Urratsak v (Mendeko Perpausak - 1)*, Gramatika Batzordea. 1999, Bilbo.
- EYS van, W. J. (1865), *Essai de grammaire de la langue basque*, Amsterdam, 1865 (2. arg. zuzendu eta gehitua, 1867).
- , (1873), *Dictionnaire basque-français*, Paris, 1873.
- , (1879), *Grammaire comparée des dialectes basques*, Paris, 1879.
- FRAILE, I; FRAILE, A. (1996), *Oiartzungo Hizkera*, Oiartzungo Udala, 1996.
- FURUNDARENA, J. J. (1998), *Astigarragako Hizkera*, Astigarragako Udala, 1998.
- GAVEL, H. (1929), *Grammaire Basque*, t. 1, Bayonne, 1929.
- GÈZE, L. (1873), *Éléments de grammaire basque*, Bayonne, 1875; Hordago, Donostia, 1979.
- GOENAGA, P. (1986) «Konpletiboak, zehargalderak eta erlatiboak», in P. GOENAGA (ed.), *Euskal Sintaxiaren zenbait arazo*, EHU, 1986, 155-189.
- , (1997), *Euskal Gramatika*, in *Euskal Hizkuntza eta Literatura*, Lur Entziklopedia Tematikoa, 1997.
- GOROSTIZA, J. G. (1981), *Idazkera ariketak*, UEI, Derio, Labayru, Bilbo, 1981.
- HABE, *Dokumentu biltegia*, (Internet sarean).
- HIDALGO, V. (1993), *Hitzen ordena euskaraz. Euskal gramatikalarrien testigantza: iritziak eta praktika idatziak*, (Lan argitaragabea, doktoretza tesian aurkeztua).
- , (1994), *Hitz ordenaren estatistikak euskaraz*, (Lan argitaragabea, doktoretza tesian aurkeztua).
- , (1999), «Hitz ordenaren estatistikak euskaraz», *Anuario del Seminario Julio de Urquijo*, 1999-2, 393-451.
- , (2002a), «Erlatibo hautsiak. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (I)», *FLV*, 89, 27-80.
- , (2002b, argitaratzen), «-(e)n... erlatibo aposatuak. Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz (II)», *Uztaro*, 42, 2002, 17-83.
- HOVELACQUE, A. (1877), «La langue basque», in *La linguistique*, Paris, 1877, 2. arg. zuz. eta gehitua, 148-167.
- INTXAUSPE, E. T. (1858), *Le verbe basque*. Bayonne, 1858; Hordago, Donostia, 1979.
- ITHURRI, J. (1895-....), *Grammaire basque, Dialecte labourdin*. Bayonne, 1895; Hordago, 1979.
- KANPION, A. (1884), *Gramática de los cuatro dialectos de la lengua euskara*, Tolosa, 1884; fak-simila LGEV.
- LAFITTE, P. (1944), *Grammaire basque (Navarro-labourdin littéraire)*, Baiona, 1944 (2. arg. Bordeaux, 1962; Elkar, Donostia, 1979).
- LAFON, R. (1966), «La particule "bait" en basque; ses emplois morphologiques et syntaxiques», *BSLP*, 1966, 217-248.
- LARDIZABAL, F. I. (1856), *Gramática vascongada*, San Sebastián, 1856.
- LARRAMENDI, M. (1729), *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*, Salamanca, 1729 (Hordago, Donostia, 1979).
- , (1990), *Euskal testuak*, Donostia, 1990.

- LARRASQUET, J. (1939), *Le basque de la basse-Soule Orientale*, Paris, 1939.
- LEIZAOLA, F. (koordin.), (1983), *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa -EAEL-. Lehen atala. Lehen zatia*, Aranzadi Zientzia Elkarte, Etnologia Mintegia, Donostia, 1983.
- LEIZARRAGA, J. (1571), *ABC edo Christinoen instructionea*, Rochella, 1571; Hordago, 1979.
- , (1571), *Kalendrerera*, Rochella, 1571; Hordago, 1979.
- , (1571), *Jesus Christ gure iaunaren Testamentu berria*, Rochella, 1571; Hordago, 1979.
- MICOLETA, R. (1653), *Modo breve para aprender la lengua vizcayna*, Sevilla, 1897 (Dodgsonen edizioa eta epilogo).
- MOGEL, J. A. (1802), *Peru Abarca*, Durango, 1881; faksimila, 1981.
- MOKOROA, J. (1990), *Ortik eta hemendik. Repertorio de locuciones del habala popular vasca*, Labayru, Etor, Eusko Jaurlaritza, 1990 (2 liburuki).
- OIHARTZABAL, B. (1985) *Les relatives en Basque*. Département de Recherches Linguistiques (D.R.L.), Université de Paris.
- , (1987), *Étude descriptive de constructions complexes en Basque: Propositions relatives, temporelles, conditionnelles et concessives*, Thèse de doctorat, CNRS, 1987.
- OLANO, M. (1998), *Areso eta Leitzako hizkerak*, Nafarroako Gobernua, 1998.
- ORKAIZTEGI, P. A. (1901), «Interesante carta», *Euskal-Erria*, t. 45, segundo semestre, 1901, 477-480 (baita ere, in *Senez* 6, 1986, 179-182).
- , (1906), *Observaciones para hablar y escribir tolerablemente en nuestro idioma euskaro*, Tolosa, 1906.
- , (1908), «El relativo en el euskera», *Euskal esnalea*, 1908.
- OTAEGI, B. (1993), *Felipe Agustin Otaegui Beizamako Erretorearen eskuizkribuak (1767-1840)*, Beizama-Donostia, 1993.
- PAGOLA, R. M. (1984), *Euskalkiz euskalki*, Euskara Zerbitzua, Eusko Jaurlaritza, 1984.
- RIBARY, F. (1877), *Essai sur la langue basque. Traduit du hongrois avec des notes complémentaires et suivi d'une notice bibliographique par Julien Vinson*, Paris, F. Vieweg, Libraire-éditeur, Librairie A. Frank, 1877.
- SALABERRI, P. (1996), «Toponimia eta dialektologiaren arteko harremanen inguruan: Artaxonako jabego genitiboaz eta bestez», *FLV*, 1996, 223-234.
- , (2000), *Luzaideko euskara, Mezkirizkoaren eta Aezkoakoaren argitan*, in K. ZUAZO (arg.) *Dialektologia gaiak*, EHU-Arabako Foru Aldundia, 2000, 221-259.
- SALABURU, P. (1984), *Arau Fonologikoak*, EHU, Bilbo, 1984.
- SALINAS SOLANO, M. (1976), *Descripción fonética del euskera de Lekeitio*, memoria de licenciatura, dirigida por Alfonso Irigoyen, Univ. Deusto, junio 1976.
- SCHUCHARDT, H. (1923), *Primitiae Linguae Vasconum*, Salamanca, Salamanca, 1947.
- TXILLARDEGI (1978), *Euskal gramatika*, Ediciones Vascas, Bilbao, 1978.
- URGELL, B. (1995), «Hitzaurrea», in F. I. LARDIZABAL, *Testamentu Zarreko Kondairna*, Klasiakoak, Donostia, 1995.
- , (2001), «Sarrera», in P.A. AÑIBARRO, *Gueroco guero*, Euskaltzaindia, 2001, XV-CCIX.
- VILLASANTE, L. (1974), «Euskara idatziaren joskera. Euskal idazle zaharren gaitzestea XX. mendean», *FLV*, 1974, 325-342.
- , (1975), «Hitzaurre gisa», in S. ALTUBE, *Erderismos*, Euskaltzaindia (berrarg.), V-XII.
- , (1976), *Sintaxis de la oración compuesta*, EFA, Serie Eleizalde.
- VINSON, J. (1919), «Syntaxe Basque. Position du déterminant et du déterminé», *RIEV*, x, 1919, 58-71.
- WEBSTER, W. (1877), *Basque Legends*, London, 1877, Griffith and Farran (J. Vinson-en amaierako kapitulu batez). Orain euskaraz soilik *Euskal ipuinak*. I eta 6, EEE, Klasiakoak, Donostia, 1993 (nondik aipuak).
- WILBUR, T. H. (1983), «BAIT- Complementation in Basque Grammar», communication à la réunion annuelle de la Philological Association of the Pacific Coast, Sta. Barbara, nov. 1983.
- ZIARSOLO, M. (19??), *Gazi-gazak*. Edili, Donostia, Txindoki-sorta 2.
- ZUBIRI, I.; ZUBIRI, E. (1995), *Euskal Gramatika Osoa*, Didaktiker, Bilbo, 1995 (nondik adibideak; 2. arg. 2000).
- ZUBIRI, J. J. (2000), «Arano eta Goizuetako hizkera», in K. ZUAZO (arg.), *Dialektologia Gaiak*, 2000, EHU, 85-120.
- ZUBIRI, J. J.; P. PERURENA (1998), *Goizuetako eta Aranoko hizkerak*, Nafarroako Gobernua, 1998.

ZUBIZARRETA, A.; M. DORRONSORO; J. M. AZURMENDI (1998), *Gramatika Gaitasuna Lantzen*. Eusko Jaurlaritza, Euskara Zerbitzua.

ERABILITAKO LABURDURAK

Ax: Ik. Axular

Cerq: Ik. Cerquand

Duv: Ik Duvoisin

EEg: Euskaldunon Egunkaria

EGLU-V: Ik. Euskaltzaindia

EGO: Ik. Zubiri, I; Zubiri E.

JBAg: Ik. Agirre, J. B.

JMA: Ik. Agirre, J. M.

Med: Ik. Aranburu, N; M. Bago Agirre

Mo: Ik. Mogel

OEH: Orotariko Euskal Hiztegia

Web: Ik. Webster

LABURPENEA

Izen ardatzaren eskuin hedatzen diren erlatiboak euskaraz saileko hirugarrena (ik. Hidalgo 2002a, b). *Zein...* erlatiboan erabilera aztertzen da estatistikoki ahozko eta idatzizko bi corpus nagusitan (1.1.), bereziki lotuaz hauen erabilera erlatiboazko esaldien luzerarekin (1.2). Zenbait kontsiderazio morfologiko (1.4.) eta sintaktiko (1.5., aditz kokagunearen inguru) egin ondoren, esaldion erabileraz eta balio semantikoez dihardugu (1.6.). Ondoren hipotesi orokor bat eraikitzen da izen ardatz determinatuen ondoko erlatibo guztien erabileraz (1.7), eta erlatiboan eta antizeinismoaren historiako zenbait ohar eman ondoren (1.8.), hauen jatorri arrotzaz edo euskal berezkoaz egite da hausnarketaren bat (1.9.), eta batez ere erlatibo hauen ahozko erabileraz, eta ahozkotasunarekin duten zerikusi zabalaz (1.3.; 1.10). Azkenik oharren bat egiten da *bait-* erlatiboan inguru ere, izen ardatz determinatuen ondoko erlatibo mota bezala (2.).

RESUMEN

Tercer artículo de la serie sobre los relativos que en euskera se extienden a la derecha de su cabeza nominal (v. Hidalgo 2002a, b). En él se examina estadísticamente el uso de los relativos con partícula pronominal (*zein*, ...) en dos corpus principales tanto orales como escritos (1.1), y se analiza especialmente su uso en relación a la longitud de las propias frases relativas (1.2). Después de algunas consideraciones de tipo morfológico (1.4) y sintáctico (1.5, sobre la posición del verbo), se tratan cuestiones sobre el uso y el valor semántico de estas construcciones (1.6). Posteriormente se construye una hipótesis referente al conjunto de las relativas pospuestas a su cabeza nominal determinada (1.7), y después de ofrecer algunas notas de la historia del uso de estos relativos, como de su rechazo (1.8), se recogen algunas reflexiones sobre el origen propio o extraño de estas construcciones (1.9), y sobre todo sobre el uso oral de tales construcciones y sobre su extensa relación con fenómenos del habla oral (1.3; 1.10). Finalmente se recogen algunas notas sobre la utilización exclusiva de la partícula *bait-* para la construcción de relativos también pospuestos a su cabeza nominal determinada (2).

RÉSUMÉ

Troisième article de la série sur les relatifs qui, en euskera s'étendent à droite de leur tête nominale (v. Hidalgo 2002a, b). On y examine d'une forme statistique, l'utilisation des relatifs avec particule pronominale (*zein*, ...) en deux

corps principaux, tant oraux qu'écrits (1.1), et on analyse spécialement leur utilisation en ce qui concerne la longueur des propres phrases relatives (1.2). A la suite de quelques considérations de type morphologique (1.4) et syntaxique (1.5), sur la position du verbe), on traite des questions sur l'utilisation et la valeur sémantique de ces constructions (1.6). Postérieurement on construit une hypothèse concernant l'ensemble des relatifs subordonnés à la tête nominale déterminée (1.7), et après avoir offert quelques notes de l'histoire de l'utilisation de ces relatifs, comme de leur rejet (1.8), sont recueillies quelques réflexions sur l'origine propre ou étrangère de ces constructions (1.9), et surtout sur l'utilisation orale de telles constructions, et sur leur relation importante avec les phénomènes du parlé oral (1.3; 1.10). Finalement sont recueillies quelques notes sur l'utilisation exclusive de la particule *bait-* pour la construction de relatifs aussi subordonnés à leur tête nominale déterminée (2).

ABSTRACT

This is the third article in the series dealing with the relative structures which appear on the right-hand side of the nominal head in the Basque language (see. Hidalgo 2002a, b). This instalment provides a statistical examination of the use of relatives with pronominal particle (*zein*, ...) from both the spoken and the written language in two main groups (1.1) and, more particularly, analyses their use in relation to the length of the relative phrases themselves (1.2). After a few reflections of a morphological (1.4) and syntactic (1.5) nature concerning the position of the verb, questions related to the use and the semantic value of these constructions are dealt with (1.6). A hypothesis regarding the set of relatives positioned after their nominal head (1.7) is then built, and, after providing a few notes concerning the history of the use and rejection of these relatives (1.8), some ideas are gathered about the specific or alien origin of these constructions (1.9) and, above all, regarding the oral use of these constructions and their extensive relationship with phenomena from the spoken language (1.3; 1.10). Finally, a few notes are provided concerning the exclusive use of the particle *bait-* for the construction of relatives positioned on the right-hand side of their nominal head (2).